



ELGOIBARREN, 2011KO abandua REN 24 AN

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI MAITEAK,  
~~aurten txintxo~~ txintxo ~~izan~~ may  
 eta horregatik

AURTEN ZERA ESKATU NAHI NIZUEKE:

Mihikuz jolasa, Gartzot komikia,  
 Goazen filma, Pirritx eta  
 Porrotren Zatoz Jolastera!, jokoak,  
 pijama bat, gonxokiak

HORREN TRUKE, AHALEGINDUKO NA  
 Nire gela txukun eta  
 sarbi utziko dut eta...





# emugi!

elgoibarko  
mugikortasun  
iraunkorra



## Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

## EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzeko

### **AUTO PARTEKATUA** (Car-sharing):

Egin zaitez bazkide eta erreserba ezazu, zure beharren arabera, A klaseko Mercedes bat (5 plaza), EAEn noizean behin egiten dituzun joan-etorrietarako. Ez duzu erregairik, asegururik edo mantentze gasturik ordaindu beharko. Erreserbatutako minutuak bakarrik ordainduko dituzu.



**PREZIO:** 0,20 € 5 minutuko (ordubete 2,40 €)  
**BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA:** 50 €

### **BIZIKLETA PARTEKATUAK** (Bike-sharing):



Erabil itzazu bizikleta elektrikoak herri barruko joan-etorrietarako. Bizikleten motor elektrikoari esker, Mintxetaraino edo Sigmaraino erraz-erraz iritsi ahal izango zara, eta ez duzu aparkatzen denborarik galduko. Eta gainera, gure herriko kaleetan motordun ibilgailu gutxiago ibiliko da.

**PREZIOA:** 0,25 € 15 minutuko  
(ordubete euro 1)  
**BAZKIDEEN URTEKO KUOTA:** 25 €

Informazio gehiago [www.emugi.net](http://www.emugi.net) webgunean edo herritarrentzako arreta bulegoan



# EIZAGUIRRE

Eguneroko ogia, hamar urtez

**Orain dela hamar urte negozioa hartu berria zuten Jose Luis eta Maialenek. Ordura arte Eizaguirre okina izandakoa hil zenean gertatu zen hori. Ez ziren baina, berriak ogiaren munduan, ezta San Frantzisko kaleko irin-arte hartan ere. Jose Luis, 9 urte zituela hasi zen lanean Eizaguirren. Lehenengo banatzaileen laguntzaille modura, eta poliki-poliki okindegiak ematen dituen bestelako lanetan. Orain hamar urte, hiru ogirekin hasi zuten ibilbide berria. Gaur egun ordea, 41 ogi desberdin erosi daitezke Eizaguirrean.**

Lortutakoarekin harro daude Maialen eta Jose Luis. Orain hamar urte lortu nahi zutenaren bidean daudela uste dute. Izan ere, artisau-ogia, kalitatezkoa eta anitza egitea zen euren helburua eta argi dago hori dagoeneko bete dutela. Dena euren egina izateaz gain, hamar urtean 41 ogi desberdin egitera iritsi baitira.

## Gustuko bidean aldaparik ez

Ez da nolana hikoia hamar urtean lortutakoa eta lana gustuko izateak asko laguntzen duela dio bikoteak. Lana gustatuz gero, betikotan geratu baino berrikuntzen bila abiatzea errazagoa da euren esanetan eta hasieratik nahi horri heldu ziotenez, erraza ez, baina gustukoa izan den lana izan da. Era berean baina, horrenbeste ogi desberdin izatearen arrazoi nagusia bezeroak direla adierazi dute. Bezeroek ondo jaso dituzte beraiek egindako aldaketak eta Maialenek esandakoaren arabera, ogi berri bat egiten diharduela esatea nahikoa izaten da, bezeroak ogi hori probatzeko zain egon daitezten.

## Bezeroen esker ona

Esker onekoa eta konfiantzazkoak. Hala ikusten ditu Maialenek beraien bezeroak. Esker onekoak, ogi berri bakoitza nola hartu duten ikustea nahikoa delako beraien esker ona neurtzeko. Eta



horrekin batera, konfiantzazkoak. Hain zuzen ere, sarritan saltzaileak izaten direlako erosleei zer erosi gomendatzen dietenak, eta horrelakoetan ikusten delako, erosleek zenbaterainoko konfiantza daukaten saltzaileengan.

## Ikusten dena baino lan gehiago

Beti entzun izan da okinaren lana gogorra dela eta ikusitakoak ikusita, ez dago ezetz esango duenik. Goizean goiz herritarrok ogia erosi dezagun, goizaldeko 3:00etan hasten da Jose Luis lanean. Artisautzaren alde on eta txarrak dira horiek. Izan ere, azken aldian horren modan dagoen ogi izoztuak ez du horrelako lanik ematen, eta hala ere artisau-ogiaren konpetentzia da bete-bete. Goxoa eta xamurra, nahiz Jose Luisek azaldu moduan, ogiaren berezko elikadura-propietate ugari galtzen dituen.

## Ogia, nahitaezko elikagai

Garai batean mediku ugari dietetatik kendutako elikagaia da ogia. Egun ordea, berriz ere bere onurei begira gaude denok. Eta horri helduta dihardute lanean Eizaguirrenekoek. Argi daukate garai batean esaten zenaren kontrara, ogiak ez duela gizentzen. Eta orain arteko ogia jan ezin izan dutenentzako ere badihardute lanean. Izan ere, gariak onik egiten ez dien jende asko dago gure artean, eta horientzako ere badute Eizaguirrean aukera ugari. Zekalea, malta, garagarra edo eta ezpelta erabilia ere egiten dituzte-eta ogiak.

## Berritzaileen berri

Berritu ala hil esan zuen behin batek, eta Eizaguirrenekoek osoz ondo bete dute esana. Bezeroek ere berritasunak ondo jasotzen dituzten seinale. Azken aldian, zeliakoentzako ogiarekin probak egiten dihardute. Behin egin beharreko probak eginda, bezeroei, beste behin, behar dutena eskaintzeko.





# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!**



**Gabon zoriontsuak!**

### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak

- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO  
TEORIKAKO  
IKASTARO  
TRINKOAK**

## NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK

- 5.000 m<sup>2</sup> babestutako barazkigintza produkziarako  
- 200 m<sup>2</sup> manipulazio eta ontziratze biltegiarako



*Gabon zoriontsuak!*



*Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu*

- Landareen PRODUKZIOA
- Laborantza KONTROLA
- Eskuz eginiko AUKERAKETA
- BANAKETA
- Bertako produktuetan erantzunik GERTUKOENA

# ZELETA

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserrria.com](http://www.zeletabaserrria.com)



## Eguberri maitatua eta gorrotatua

Hauxe irakurri dut, eta hauxe idatziko dut hemen. Eguberria ate joka daukagu, Eguberri maitatua eta gorrotatua. Amets handien eta neurri bereko frustrazioen Eguberria. Eguberria ospatzekotan, gure bizitzaren errealismoz ospatu behar dugu. Ez digu amets hutsak balio. Hainbeste itxurakeria eta azalakerien artean ez da erraza Eguberria ospatzea. Gure sukaldeek Eguberri neurritsua behar dute, egian oinarritutakoa, eta elkar zerbitzatzera eramango gaituena. Gure herriak ere behar du Eguberria. Elkarbizitza, adiskidetzeta, barkazioa eta duintasuna bideratuko dituen Eguberri handi bat egin behar dugu.

Eguberri honetan itxaropena nahi genuke, itxaropena behar dugu, itxaropena! Krisia gora eta behera, ez da giro oraintxe. Beldurra sartu digute hezurretaraino. Eta batzuek, gehiegik nolana ere, ez beldurra bakarrik; krisiaren golpe latza hartu dute bizkarrean. Zenbat familia sufritzen! Esperantzarako motibo askorik ez da sumatzen inguruan.

Hori horrela izanda ere, baditugu itxaropenerako arrazoiak. ETAk armak isildu ditu, eta betirako omen da. Itxaropenari leihoa ireki eta haize freskoa sartu da gure bihotzetara; gure herriaren bihotzera. Ez zaigu gertatuko olerkariak poema hartan esan zuena:

*Esperantzari leiho bat zabaldu omen diote,  
bizi ahal ote den ikusteko ere.  
Baina apenas ikusi duten esperantzarik.  
Desilusio usaina irten omen da leihotik.  
Abendu argia eta Eguberri zoriontsua izan dezagula.*

Enrike Larrañaga



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan:  
943 744 112 edo barren@elgolbarkolzarra.com

**“Elkarbizitza, adiskidetzeta, barkazioa eta duintasuna bideratuko dituen Eguberri handi bat egin behar dugu”**



ESKERTZA

**RAMON IRIONDO LOPETEGI**

2011ko abenduaren 7an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

**MARIA ASTIGARRAGA AROZENA**

*“Gure indarra eta argia izan zinen.  
Gure ondotik joan zinen baina gure bihotzetan betiko geratu zara”*





# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:




Laguntzaileak:



MENDIARDO UDALA



ARRE, AIRE ET EUSKALDE



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Sistema eraginkorra atez ateko bilketa da

Gipuzkoako hainbat herrietan hondakinen gaikako bilketak argi utzi du egun dugun hondakin biltzeko ereduak ez dituela emaitza esanguratsuak lortzen. Ondo egiten dugunaren sentsazioa dugu baina oso urruti gaude sortzen dugunetik birziklagarria eta berrerabilgarria dena ondo biltzetik. Bilketan, gaikako bilketan dago beraz arrakastaren gakoa.

Esperientzia ugari dugu gure inguruan, Euskal Herrian, estatuan eta Europan. Eta sistema eraginkorra atez ateko bilketa da. Modu desberdinean egin daiteke, baina esperientzia horiek lortzen dituzte emaitzarik harrigarrienak. Hor ditugu Italiako eta Kataluniako kasuak eta Euskal Herrian Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolakoak.

Guztion helburua sortzen dugun hondakinen %100 gaika biltzea izan behar du, horretarako sistema eraginkorra herriz-herriz, auzoz-auzo eta etxez-etxez ahozko lanketa egitea da, kontzientziario lana egin behar dugu, gaiak garrantzia duelako.

Eta bilketa sistema horiek ahalik eta azkarren ezartzeko apustua ezin da atzeratu. Denborarik galdu gabe erabakiak hartu behar ditugu guztiok, agintean daudenak zein herritarrok, orain da unea. Moratoria indarrean jarri da nahiz eta presio handiak egon enpresa eta banketxeen artetik. Gipuzkoa Zero Zabor eta Usurbilgo Ituna ez ziren sortu soilik kontra egiteko, beste alternatibak badaudela frogatzeko eta herriari hitza emateko baizik. Atez ate aurrera!

A. Z. ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

### OHARRA

Iritsi dira Gabonetako oporrak **BARREN**era. Hurrengo alea **urtarrilaren 5ean** argitaratuko dugu, ostegunean.





Angel Ugarteburu

Zo-  
rion-hotsa izan-  
go dok kaleetan  
eta airean lerro  
hauek irakurleen be-  
gietara iristen direnean.  
Hala tokatzen dok, An-  
dres, Gabonetan. Opatu,  
behintzat, halaxe opa jeutsat neuk  
ere mundu guztiari. Jakin bajakiagu,

ostera, ongizatearen ondo-ondoan dagoela on-  
doeza ere. Haren beldur garelako izango dituk, ziurrenik, elkarrengana-  
nako desio ederrak.

Nahikoa dok albistegietan edo egunkarietan arreta jartzea  
ondoeza noraino zabaltzen den konturatzeko. Han eta hemen entzun  
eta irakurtzen ditugun hitzak dituk lekuko. Ekonomiari dagokionez, zo-  
rra, *erreskatea, arriskuaren hobaria, langabezia...* beste konturik ez ja-  
gok aspaldi honetan. Erremedio bila hasi, eta bapo! Dirudunek miseria-  
tik ere etekinak atera nahirik. Nola ulertu behar joagu gehien behar due-  
narentzat itenbidea garestiago izatea? Bai aurpegi gogorra! Baina zer  
esaten najabilik! Kapitalismoa inpersonala dok; ez jaukak aurpegirik eta  
ezin lotsaz gorri-gorri egin, motiboak izan arren. Gizatasuna galtzen  
atera dok. Gure panorama ikusita ez jaukagu harrotzeko motibo handi-  
rik. Lotsatzeko bai, ostera. Gatazka eta gudak, bortxaketak, espetxe-  
ak, heriotzak... berri txarrek osatzen juek gure miseriaren kronika. Gi-  
zartea gaixorik dagoenean zaila dok inor zoriontsu izatea.

**“Kapitalismoa inpersonala dok; ez jaukak  
aurpegirik eta ezin lotsaz gorri-gorri egin”**

Barkatu; ez najuan jai-eta zorion-giroa izorratu nahi. Bajakixat alde  
onak ere badirela. Akabo, bestela! Zorionak, ba, nire esku dagoen neu-  
rrian hala behar duten guztiei, baina, egia esan, ondoezik jartzen naitek  
entzuten eta ikusten ditudan berri eta zahar askok.



Andres Alberdi

Ai, Angel, orain arteko ohitura apurtuta, ondo  
aldarte ezkorrez hatorkit gaurkoan! Eta noiz, eta  
Gabon garaian, juxtu kontrakoa espero behar  
denean!

“Berri txarrek osatzen juek gure miseriaren  
kronika” diostak. Ezin uko egin hire pertzep-  
zioari, hik esandakoak egia borobilak dituk eta.  
Ezin besterik espero, gaur egun, ekonomia-  
kontuetan. Eta okerrenea duk hire esanak iraultze-  
ko argudio fundamentuzkorik ez zaidala otutzen;

munduaren eta munduko gauzen neurria galduta bezala  
gabiitzak denok ere aspaldian.

**“Munduko kontuak ziklikoak direnez, itxaropena  
badiat gauzak iraultzen hasiko garela”**

Beste behin ere, boterea bere lanean ari duk: bere tamainako eta  
intereseko gizartea eratzen lagunduko dioten ideiak eraiten, hain zu-  
zen. Ari duk guri sinestarazten krisia berez etorri dela, erantzule jakinik  
ez duela iruzurkeria itzel horrek, oraindik indarrean dauzkagun gizarte-  
laguntza sozialak ezinezkoak direla, era guztietako murrizteei men egin  
beharko diegula, produktibitatea handitu egin beharko dela, kaleratze-  
ak ezinbestekoak direla enpresa onik aterako bada... Horiek onartzu  
gero, ordea, denok gaudek galzorian, denok jasan beharko ditiagu ga-  
lerak. Eta bazekiagu batez ere norik ordaindu beharko duen larrutik,  
noren bizkarrera joango den zama; ez, noski, krisia egonagatik, lotsa-  
garriki ugarituz doazen gama altuko autoen jabeen sakeletara.

Hala ere, munduko kontuak ziklikoak direnez, itxaropena badiat  
gauzak iraultzen hasiko direla/garela. Beste balio batzuk behar ditiagu;  
juxtu, gaur egun masa-hedabideetan erakusten dizkigutenean kontra-  
koak: justizia soziala, berdintasuna, solidaritatea, inkonformismoa (es-  
tatu bateko gizarteak nola jasan, dezake % 23ko langabezia?), kritika-  
sena, zentzuzko kontsumoa... Hala nahiko nitek. Gabon zoriontsuak  
denoi!



II. URTEURRENA

**VALENTIN ROMERA RAMOS**

2009ko abenduaren 24ean hil zen.

*“Betiko izango zaitugu gogoan”*







## ‘Egin dezagun bidea’ herri mugimendua aurkeztu zuten hainbat herritarrek joan den zapatuan

Euskal preso eta iheslariak, beraien eskubideen jabe, etxera ekartzea dute helburutzat



**E**gin dezagun bidea herri mugimendua aurkeztu zuten hainbat elgoibartarrek joan den zapatuan, Plaza Handian egindako prentsaurrekoan. Kultura, kirola, politika eta hezkuntza munduko herriko aurpegi ezagunak elkartu ziren Plazan, azaldu bezala, “euskal preso politikoen eta iheslarien eskubideen alde” lan egin nahi duen herri mugimendu hau aurkezteko. Aurkezpena ez ezik baina, herritarrek mugimendu honetan parte aktibo bilakatu daitezzen, elgoibartarrei gonbidapena egiteko modua ere izan zen zapatukoa.

Espetxe politika konponbidearen gakoe-tara ekarri beharra azpimarratu zuen Jesus Mari Makazagak, herri mugimenduaren izenean euskaraz hitza hartu zuenak. “Espetxe politikak oinarritzko eskubideak ukatzen ditu. Salbuespenez ezartzen zaizkien kartzela politikak, sakabanaketak, dispersioa, isolamendua eta muturreko eskubide urraketak ditu bere oinarrian, espetxe politika horrek”.

Egoera politikoaren balorazioa ere egin

zuten, Euskal Herria aro politiko berri batean dagoela ulertzen baitute mugimenduaren partaideek eta hori horrela, “preso eta iheslari guztiak etxeratzeko bidea egiteko konpromiso sendoa” hartu dutela adierazi zuten. Bide hori egiten joateko, euren esanetan, presoek ezarri zaizkien muturreko neurriak indargabetzeak eta presoak dagozkien eskubide individual eta kolektiboak jabe izateak daukate lehentasuna.

Izan ere, *Egin dezagun bidea* herri mugimenduaren ustetan, preso politikoen kolektiboak gatazka konpontzeko prozesuan parte aktibo izan behar du, eta aurrez aipatutako neurriek lagunduko dute horretan.

Datozen ekintzetan parte hartzeko gonbitea egin zieten herritarrei, eta bukatzeko, Ainara Ladron eta Juan Mari Mendizabal presoek idatzitako karta bana irakurri zituzten. Biek ere, *Egin dezagun bidea* mugimenduari eta Euskal Herrian azken hilabeteetan zabaldutako egoera politiko berriari euren babes osoa eskaini zieten beraien hitzetan.



### DEIALDIAK

Abenduaren 24an, 15:00etan  
AMNISTIAREN ALDEKO OLENTZEROKO

Abenduaren 30ean, 20:00etan  
AZKEN OSTIRALA, PLAZAN

Abenduaren 31n, 13:00ean  
GIZA KATEA

Urtarrilaren 7an, 17:30ean  
MANIFESTAZIO NAZIONALA BILBON

## Zer eskatzen diozu urte berriari?



**Olvido Deza**  
46 urte, etxeoandrea

Joan den urtea baino hobea izatea. Langabezian egon naiz, eta dagoeneko horregatik jasotzen nuen laguntza ere bukatu zait. Lana eskatzen diot, beraz, urte berriari. Eta krisi hau bukatzea. Ea behingoz bukatzen den eta irteten garen egoera triste honetatik.



**Manuel Nieto**  
62 urte, jubilatua

Loteria tokatzea, hori eskatuko diot urte berriari. Nahiko loteria tokatu zait honez gero, jubilatuta berri nago-eta, baina hala ere ondo etorriko da. Niretzat 2011 ere urte ona izan da, baina besteentzat hobea izan dadila, eta bukatu dadila krisi ekonomikoa.



**Ignacio Garai**  
48 urte, zaintzailea

Lana eskatzen diot urte berriari. Eta jendeak alaitu dezala zertxobait aurpegia. Urteak daramatzagu krisi ekonomikoa jasaten, eta gure pazienteiak ere bere mugak dauzka. Bukatu dadila lehenbailehen krisi ekonomikoa eta egon dadila lana guztionez.



**Manu Rey**  
45 urte, ostalaria

Azken batean beti eskatzen direnak eskatu beharko zaizkio ba. Lana, osasuna... Ez dira egun goxoak izaten hauek, eta gogo askorik gabe helduko diot urte berriari, baina betikoak eskatu beharko! Aurtengoa baino zertxobait hobea izan dadila.

## ■ SEMAFOROA



**Aurten ez dute Gabonetako argirik jarriko auzoetan:**

“Oso gaizki iruditzen zait Udalak hartu duen erabakia.

Aurten erdiguneko kaleetan soilik jarri dituzte Gabonetako argiak. Dirua aurrezteko neurria dela ulertzen dut, baina beti berdinez izaten gara kaltetuak. Auzoetan bizi garenok berdinez ordaintzen ditugu zergak! Beste aukera batzuk ere badaude, adibidez, kalean tarte zabala goarekin jarri daitezke argiak, eta hortik kentzen direnak auzoetan jartzea ondo legoke. Herritar guztiei tratatu bera eman behar zaiela uste dugu”.



**Sigmako frontoiko sarea abuztuan lapurtu zuten:** Joan zen alean Sigmako frontoian sarea falta zela argitaratu genuen, eta horren harira, erantzuna ematera etorri da pilotazale talde bat BARRENERA: “Sare hura geuk jarri eta geuk ordaindu genuen bere garaian. Ondarrutik ekarri genuen sarea, eta 200.000 pezeta ordaindu genituen geure poltsikotik. Abuztuko goiz batean konturatu ginen sarea ostu zutela, eta bihotzeko mina hartu nuen. Markinan badago sareak egiten dituzten enpresa bat, eta hara jo dugu aurrekontu eske. Udaleko Hirigintza arduradunarekin ere jarri gara harremanetan, eta ahal dugun azkarren jarriko dugu sarea Sigmako frontoian”.





## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Gure hitzak  
esan berriz esan,  
ez daitezela ahaztu,  
ez daitezela gal,  
elur gainean  
txori hanka arinek  
utzitako arrasto sail  
ederra bezalaxe.*



-Mikel Laboa-

### Zorionak eta urte berri on!

Nafarroa plaza, 2 – 943 742 731  
20870 ELGOIBAR • [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

Zorionak eta urte berri on  
Felicitades y próspero año nuevo  
Merry christmas and happy new year  
Buon natale e felice anno nuovo  
Joyeux Noël et bonne année  
Frohe Weihnachten und ein  
gutes neues Jahr

圣诞快乐

INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES

Azkue Auzoa, 1 / Upaiz-Zaharra, 12 Behea, Elgoibar - Tel.: 943 744 040 - email: [ils@ils.es](mailto:ils@ils.es)  
[www.ils.es](http://www.ils.es)





Elgoibarko EAJ-PNVk  
jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
elgoibartar guztioi.



## 2012ko aurrekontua aurtengoa baino %6,4 txikiagoa izateko proposamena egin du Udal Gobernuak

Aurrekontuari emendakinak egiteko aukera eskaini die Bilduk herritarrei

**A**lfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak 2012rako prestatu dituzten aurrekontuak aurkeztu ditu, eta emandako datuen arabera, datorren urteko aurrekontua aurtengoa baino %6,4 txikiagoa izango da, 12.662.516 eurokoa, hain zuzen ere. Inbertsioetarako aurreikusitako partida 780.000 eurokoa da, eta besteak beste, ondorengo lanak egingo dira: Loritoko aldapa eta Pedro Migel Urruzuno kalea berritzeko 150.000 euro erabiliko dira; azaroko euriteen ondorioz zenbatutako kalteak jaso zituzten baserri bideak konpontzeko 125.000 eu-

roko partida bat aurreikusi dute, eta Pilar ikastetxea egon zen eraikina bota eta orubea prestatzeko, 200.000 euro behar harko direla aurreikusten du Udal Gobernuak. Foru Aldundiak, hasiera baten 2012ko aurrekontuetatik kanpo laga bazuen ere, 100.000 euro jarriko ditu azkenean Pilarreko zahar etxea egiteko proiekturako.

Aurrekontuak lantzerakoan “zorrotasuna eta zehaztasuna” izan direla irizpide nagusiak argitu dute Udal Gobernuak kideek. Hala, 11.839.412 euroko gastu arruntak aurreikusten dituzte eta

12.162.516 eurokoa izango da sarrera arrunten kopurua. Ondorioz, 323.100 eurokoa izango da aurrekontuaren proposamenean aurreikusten duten aurrezki gordina.

### Herritarren emendakinak

Elgoibarko Bilduk herritarren aurrean aurkeztu ditu Udal Gobernuak proposatutako aurrekontuak, eta herritarren ekarpenak jasoko ditu, udaletxera eramateko.

Behin betiko aurrekontuak urtarrean onartuko ditu Udalak.

## Gabon Zahar egunean hasiko dira Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunak

Elgoibar Ikastolak 50 urte egingo ditu 2012an, eta ospakizun ekitaldi nagusia ekainaren 9an egingo badute ere, urte osorako ekintzak prestatu dituzte. Eta lehenengoa Gabon Zahar egunean egingo dute. Ikastolak Nafarroa plazan urtero antolatzen duen txosnan, euskal dantza eta bertso saioa egingo dituzte 11:00etan, eta zinta bat moztuko dute, urteurrenari hasiera emateko. Txosnan, salda eta txorizoarekin batera, erifak ere erosteko aukera egongo da, eta urtero bezala, Eusko Label haragizko pintxoak salduko dituzte. Elgoibar Ikastolak 1962ko maiatzaren 2an hasi zuen bere ibilbidea 29 umerekin, eta Itziar Ajuria andereño zutela.



## Ideko IK4 Zentro Teknologikoak 25 urte egin ditu



Abenduaren 14an ospatu zuten Ideko Ik4 Zentro Teknologikoaren 25. urteurrena, eta besteak beste, Patxi Lopez lehendakariak bisitatu zuen enpresa. Lehendakariaren esanetan, Euskal Herriko zentro teknologiko guztiek Idekoren eredua jarraitu behar lukete, eta krisiari aurre egiteko trnsna balio-tsuenen artean berrikuntza nabarmendu zuen. Horri lotuta, berrikuntzan Barne Prdoutu Gordinaren %3 lortzea aurreikusi duela Eusko Jaurlaritzak gaineratu zuen. Lehendakariarekin batera, Bernabe Unda Merkataritza eta Turismo sailburua, Jose Maria Aldekoa Mondragon Taldeko lehendakaria, Jon Peli Uriguen Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa garapena eta turismo diputua eta Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea izan ziren ekitaldian.

## Pertsonaia **Victor Zubiaurre**



Victor Zubiaurre musikari elgoibartarra hil zen joan den martitzenean. 46 urtean bandako partaide izandakoa, Mauxitxa txarangako sortzaileetako bat izateaz gain, Elgoibarko Dultzaineroen taldea ere sortu zuen Mujika eta Gorritirekin batera. Hain zuzen ere, etzi egingo dira 40 urte, dultzainero-taldeak Elgoibarren lehen aldiz jo zuenetik. Bere jatorrasuna, berekin batera egindako barre algarak eta bere musiko-bokazioa gogoratu ditu Txomin Mujikak. Merezitako tamainan, musikaren laguntzarekin agurtu zuten Zubiaurre; txistu, dultzaina eta banda doinuek lagunduta.

## Lekua **Guasseko aparkalekua**

Aurrerantzean Guasseko aparkalekuan, 30 aparkaleku-pribatu jarriko ditu Udalak, erabili nahi dituenaren eskura, hilean 25 euro ordaintzearen truke. Udal-batzarrean hartu zen erabakia, EAJk, PSE-EEK eta PPK alde bozkatu eta Bildu abstenitu ostean. Alkatearen esanetan, 30 aparkaleku pribatu horiek gordetzeko interesa azaldu dute Elgoibarko zenbait enpresek; Txarriduna Hotela tarteko, bere bezeroentzako aparkaleku modura erabiltzeko. Alabaina, enpresek interesa agertu duten arren, aparkalekuak dituen 65 plazatik 30 horiek gordetzeko aukera, herritarren esku ere badago.

## Ekimena **Jubilatuaren astea**

Abenduaren 13an hasi eta 18a bitarte, Jubilatuaren Astea ospatu zuten Elgoibarko Jubilatuaren etxean. Txokolatada, gabonetako otarren zozketa, meza edo eta Gelatxoren dantzaldia izan ziren besteak beste, astean zehar ospatutako ekitaldiak eta horien artean, omenaldi-bazkaria ere izan zuten. 80 urtetik gorakoak eta aurreko urrezko-erretiroak bete dituzten bikoteak omendu zituzten abenduaren 15ean.



## **1.800 euro banatuko ditu Txankakuak bezeroen artean**

Eguberriak direla-eta, 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi banatuko ditu Txankakuak erosketaxarteletan, bere bezeroen artean. Horrez gain baina, Txankakuako maskotak 1.000 arbel magnetiko oparituko ditu, Txankakuako bazkide diren dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean.

## **Arnaldo Otegiren aldeko kontzertu akustikoaren grabazioa eskainiko dute**

Urtarrilaren 3an eskainiko du Arnaldo Askatu *Politika Askatu* plataformak, urrian antolatutako kontzertu akustikoaren grabazioa. Besteak beste, Zea Mays, Ken Zazpi, eta Esne Beltza taldeak izan ziren Elgoibarren eta zenbait herritar kontzertua ikusteko gogoz geratu zirenez, grabazioa pantaila handian eskaintzea erabaki du plataformak. 19:00etan izango da proiektzioa Herriko Antzokian, doan izango da sarrera eta DVDak jarriko dituzte salgai.



## **Eguberrietarako ekintza ugari antolatu ditu Gazte Asanbladak**

Azken aldian herrira begira gauza gehiegi egin ez duen arren, lanean jardun du Gazte Asanbladak. Gaztetxean obrak egin eta berritze lanetan dihardute antza, baina dagoeneko, erabiltzeko moduan dago Gaztetxea. Horregatik, eguberrietarako antzerkia, hitzaldiak, kontzertua edo eta dokumental-emanaldia antolatu dituzte, abenduaren 27an hasi eta urtarrilaren 6ra bitartean.



## Erretratu zaharra



1965

Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Gurrutzagak ekarri du BARRENERA. 1965. urteko erretratua da, eta urte hartako gabonetan aterata dago. Garai hartan urtero egiten zuten dirua biltzeko kalejira Caritasek antolatuta, eta gero, herriko behartsuenen artean banatzen zen diru hori. Kantuan irteten ziren neska-mutilak kalera, eta oso giro onean jarduten zuten dirua batzen. Maria Luisak erretratu honetako jende asko ezagutzen du, baina beste asko ezin izan ditu identifikatu, baina seguru, norberak bere burua ezagutuko duela.



I. URTEURRENA

### ANA GARATE GOYARZUN

2010eko abenduaren 18an hil zen.

*“Urte berrian ere hemen izango zera,  
zure antzera argi eta kementsu bagera”*

Seme-alabak eta bilobak, esker onez



ESKERTZA

### JOSEFA JUARISTI AROZTEGI

2011ko abenduaren 1ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Azaroan...

## JAIOTAKOAK



**Ibon Iparragirre Egafia**  
Azaroak 14  
Josu eta Nerea




**Leire Vazquez Crespo**  
Azaroak 24  
Patxi eta Susana



**Maia Soto Urbieta**  
Azaroak 3  
Israel eta Olatz



**Unax Ezenarro Aizpitarte**  
Azaroak 13  
Igor eta Josune



**June Uria Tadeo**  
Azaroak 15  
Oskar eta Mirian

**Aitor Elizondo Del Rey**  
Azaroak 23 Luis Alfonso  
eta Rosa Maria

**Jare Juaristi Viñaras**  
Azaroak 26  
Joseba eta Ainhoa

## HILDAKOAK

Jose Maria Agirre Goyogana • 85 urte • Azaroak 1  
Mila Askorbe Irusta • 92 urte • Azaroak 10  
Pakita Lizarriturri Arrieta • 93 urte • Azaroak 16  
Mari Carmen Etxabe Arruabarrena • 81 urte • Azaroak 15  
Ana Mari Sanz Etxeberria • 87 urte • Azaroak 20  
Mari Carmen Txurruka Arrizabalaga • 80 urte • Azaroak 21  
Juliana Camarero Vicario • 89 urte • Azaroak 25

## ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

**Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR**  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekua) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hila beteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.



I. URTEURRENA

**PACO AIZPURUA AROSTEGI**

1922.10.04 - 2010.12.10

*"Nahiz eta urrun joan mundu honetatik  
ez duzu alde egingo gure bihotzetatik"*






# LAGUNAK KOLTZOI DENDA- TEXTIL HOGAR

## GABONETARAKO ESKAINTZA BEREZIA


**%10etik %25era arteko beherapenak: koltxoi eta somierretan  
% 25eko beherapena Kol eta Pikolin Nordiko-barrukoetan**



**URTE BERRI ON!**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**BAINUGELAK**

**GASA**

**KLIMATIZAZIOA**

**ENERGIA BERRIZTAGARRIAK**

Pedro Muguruza etorbidea, 11 behe - 20870 Elgoibar  
Tel.: 943 254 522 - Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com) - [www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**Eguberri zoriontsuak!**





**urkotronik**  
OSTALARITZAN ETA  
VENDING-EAN ADITUAK.  
1983 GEROZTIK.

**ZORIONAK  
ETA URTE BERRI ON!**

www.urkotronik.com | 943 203 112 / 902 127 137  
urkotronik@urkotronik.com

**IMH** Makina  
Erreklamazioen  
Instituta  
www.imh.es

2012rako **I**txaropena eta **M**aitasuna  
bi **H**otzez

**URTE BERRI ON!**

**GABILONDO**  
317  
api

INMOBILIARIA AGENTZIA  
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola  
Jose M<sup>a</sup> Azpeleta Iturricastillo

**ETXEBIZITZA ERAIKI BERRIAK**

Logela batekoak edo bikoak - San Bartolome kalea, 1  
144.242 eurotik hasita

**Jai zoriontsuak denoi**

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR- Tel: 943 74 44 67





3 LOGELAKO  
**ETXEBIZITZAK**  
**230.000 €-tik**  
HASITA  
**ELGOIBAR**



## ZURE ETXEBIZITZA BERRIA ELGOIBARREN

 **UBITARTE  
BIZIGUNEA**

- 32 Etxebizitza eta garaje berri ingurune paregabe
- Etxebizitza zure neurrira egokitzeko aukera
- Duplex atikoak solariumarekin
- Behe solairuak terraza handi eta txokoekin
- Diseinuzko sukalde ekipatuak
- Lehen salmentetarako aukera bereziak



**Garajeak salgai.**  
*Gabon zoriontsuak  
eta urte berri on!*

**943 744 303**

[www.ubitarTE.com](http://www.ubitarTE.com)

**SAN BARTOLOME 16.NEAN GAUDE. ETOR ZAITEZ!**

2011

URTEGARÍ

e RREPASO a







Adingabeak tabernetan sartzen ez direla zaintzeko kanpaina hasi zuten urtarilean, udaltzainek eta ertzainek elkarlanean. Bi zapatu arratsaldetan (urtarrilaren 15ean eta 29an) 51 adingabe identifikatu zituzten ertzainek eta udaltzainek herriko zenbait tabernetan, elkarrekin eginiko polizia operazioan. Identifikatutako 51 lagun horiek Landa, Truk, Ilunpe eta Kartutxo tabernetan topatu zituztela azaldu zuen Alfredo Etxeberria herriko alkateak, eta, era berean, identifikatutako adingabeen %92 ez zirela elgoibartarrak zehaztu zuen.



Bilal Attgui Mesaoud izan zen 2011n Elgoibarren jaio zen lehenengo umea –urtarrilaren 5ean jaio zen-, eta Espainiako Gobernuak abenduaren azkenera arte banatu ohi zuen 2.500 euroko diru laguntza kendu bazuen ere, Bilalen gurasoak ez ziren esku hutsik geratu. Izan ere, EAJren Elgoibarko Uri Buru Batzarrak otarra bat oparitu zien Bilalen gurasoei urteko lehenengo umea izatearren. XX. mende hasierako ohitura bat berreskuratu zuen hala EAJK.

Eneko Loiola pilotariak bosgarren saiakeran lortu zuen San Anton pilota txapelketako finala irabaztea. Uriarterekin bikote eginez lortu zuen txapela Atxotegiri eta Jauregiri 22 eta 13 irabazita. Promesetan beste pilotari elgoibartar batek jantzi zuen txapela, Haritz Arribillagak, hain zuzen ere. Murgiondo eta biek, 22-15 irabazi zioten Muguruza-Rezusta bikoteari.



Leonard Komon eta Sara Moreira izan ziren Mugertza krosetako irabazleak. Komon kenyarrak hirugarren garaipena lortu zuen Mintxetan eta Moreira portugaldararentzat lehen garaipena izan zen. Giroa hotz zegoen arren, korrikalariak ez zuten berotasun faltarik izan, Mintxetan bildutako 3.800 ikusleek gogoz animatu zituzten-eta.



**Gabon zoriontsuak!**

**EGUR-LABEAN EGINDAKO  
ARTISAU-OGIA,  
KONTSERBAK ETA  
ARDOAK.**

San Bartolome 26  
Tel.: 680 724 060





**Elgoibarko Basherri taldea aurkeztu zuen urtarrilean.** Baserritarren eta erosleen artean harreman zuzena bultzatu eta lurrrari lotutako nekazaritza eredua sustatzeko jaio ziren Basherri taldeak, Gipuzkoako EHNEK eta Biolurrek lagunduta. Bitartekaririk ez dago talde hauetan, baina bai ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko hitzezko hitzarmen bat; bestera esanda, elkarri laguntzeko konpromisoa. Batetik, hemen bertako barazki eta fruitak eskuratzen ditu kontsumitzaileak, sasoiari sasoikoak, eta bestetik, baserritarrek "prezio duin batean" saldu ditzakete produktuak.



Kongon (Afrika) jasotako irudiek inagin zuten Irribarren paradisua izeneko dokumentala estreinatuz, urtarrilaren 17an, Jairo Berbelek. Bi urtez segidan joan zen Berbel Kongora, Kanseniako zonaldera, Tomas Madinabeitia misiolariarekin, eta hango bizimodua jaso zuen bere kamerarekin. Hango bizipenen ondoren, mundua beste era batean ikusten zuela itzuli zen Jairo. Bere iritziak, pozik bizitzeko ez da gauza asko behar, eta sentipen hori elgoibartarrei transmititzea nahi izan zuen Irribarren paradisua dokumentalarekin.



**Jose Antonio Osoro 'Katxok' azkenengoz zuzendu zuen Udal Musika Banda urtarrilaren 17an.** 1984. urteko Errege Egunean hartu zuen Katxok Udal Musika Bandako zuzendari kargua. Orduko hartan Ricardo Doradoren Simba izeneko piezarekin hasi zuen kontzertua eta pieza berarekin esan zuen agur 27 urtean bete zuen karguari. Txomin Mujikak hartu zuen Osororen erreleboa. *Aupa Katxo* izan zen honek zuzendu zuen estreinako pieza.

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

**Idama**

➤ Azaroko irabazlea:  
**ANGELITA ZABALA**

Abenduko saria:  
**KOLOREA,  
MOZKETA ETA  
ORRAZKERA**

**Gabon zoriontsuak!**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26





Iker Maiorak Espainiako maratoni txapelketa irabazi zuen, taldeka. Korrikalari mendarorak Goierri Garaia taldearekin lortu zuen garaipena taldekako kategorian. Bakarka, 36. postuan amaitu zuen lasterketa Maiorak, 2:31:54 denborarekin.



Herriko Antzokia txiki gelditu zen Amaldo askatu, politika askatu herri ekimenak antolatatu zuen mahai ingurua zuzenean jarraitzeko. Euskal Herriko egoera politikoaren gainean berba egin zuten izen handiko lau hizlarik: Xabier Arzalluz, Mariano Ferrer, Jone Goizzelai eta Martxelo Otamendi. "Araldo Otegi bahitu politiko bat da eta mendekuz dute preso" esan zuen bertan Martxelo Otamendi Berría egunkariko zuzendariak, eta berba honek bere egin zituzten gainerako hiru hizlariek.



Punk-oil taldeek 'Holidays in Bardulia' musika jaialdia antolatatu zuten otsailaren 26an Elgoibarko Gaztetxean. Euskal Herriko hainbat lekuetatik etortzako 800 lagun inguru bildu ziren Gipuzkoako bederatzai musika talderen kontzertuak jarraitzeko. Holidays in Bardulia jaialdia 2004an antolatatu zuten estreinakoz Andoingo gaztetxean, eta handik aurrera urtero herri ezberdin batean egin dute.



**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**PINTURAK**  
KOMPONKETAK  
ALABANQUELA ARANZATEGI CARPINTERIA

Pedro Pérez Baristain  
Xuxillon Kalea 2 sotoa 3  
943 74 36 52 - 639 76 09 19

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXKO KOMPONKETAK



**CORDON VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezarria  
Lantekua: egur, aluminio, PVC  
Pintura orokorra

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 740 670



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - I      Tel: 943 741 189



Eguzkiaren argia ustiatuta, energia garbia sortzeko jarri zituzten eguzki plaka fotovoltaikoak Herri Eskolako eta Mintxetako igerilekuen aldagelako teilatuetan. Hala, elgoibartarrek energia fotovoltaikoan inbertitzeko aukera dute orduz gero. Energia iraunkorraren kultura zabaldu eta orokortzeko helburuarekin, herritarrak eta gizarte eragileak partaide izatea nahi dute proiektuaren arduradunek, partaidetzak erosiz. Izan ere, horiei esker energia sortzeko metodo hori zabaldu eta hedatu egingo dela uste dute Diputazioko arduradunek. Foru Aldundiak Elgoibarko Udalaren laguntzarekin sustatutako proiektu pilotu honetan lau herri ari dira parte hartzen: Elgoibar, Oñati, Zarautz eta Zegama

Ertzaintzak 36 urteko elgoibartar bat atxilotu zuen otsailaren 6an, Urazandi auzoan, 30 urteko neska-lagunari erasotzea egotzita. Biktimak, erasotzailearengandik ihesi, etxe barruko patiora salto egin zuen, bost metrotik behera, eta Mendaroko Ospitalera eraman behar izan zuten zaurituta. Ertzainek etxean bertan atxilotu zuten ustezko erasotzailea. Erasotzailearen salatzaileak elkarretaratzera egin zuten 200 lagun inguruk, Elgoibarko Emakumeen Asanbladak antolatuta. Elgoibarko Udaleko Tokiko Batzordeak ere emakumeenganako indarkeria ororen kontrako gaitzespen idatzia onartu zuen.



Jenaro Garate ekonomilari elgoibartarra hil zen otsailaren 11n, 84 urterekin. Besteak beste, aitzindaria izan zen ekonomiari buruzko testuak euskaraz idazten, orain dela 40 urte. Makroekonomiaren oinarriko arazoak luze eta sakon ikertu ostean, Jakin aldizkarian eta Gero editorialean eskaini zituen bere azterketen emaitzak. Gotzon eta Roman anaiak moduan, jesuita izan zen, bide hori gero laga arren.


**ZORIONAK eta URTE BERRI ON!**

**Elgoibarko Haurreko Eskola**  
943 742 141

Haurreko Eskola  
www.haurrekoeskola.net



Guass diskoteka egon zen eraikina bota zuten martxoan, eta gune horretan ordaindutako herriko estreinako aparkalekua egin zuten. 2010eko martxoaren 31n itxi zuten diskoteka, 30 urteko ibilbidearen ostean.



Marka berria ezarri zuen Ernesto Ezpeleta 'Bihurri' aizkolariak. Ordu bete, 38 minutu eta 39 segundo behar izan zituen esku bakarrarekin hiru metroko gerri bueltako pago enborra ebakitze-ko. 3.029 aizkorakada behar izan zituen enborra mozteko, eta marka horrekin munduko errekorra ezarri zuen aizkolaria mendarorarak.



Arriagako Garbigunea martxoaren 23an inauguratu zuten. Etxean sortzen diren hondakin bereziak batzeko eta behar bezala kudeatzeko guneak dira garbiguneak. Elgoibarko Garbigunearen kasuan, txatarra, egurra, kartoia, plastikoa, gurpilak, obra hondakinak, indusketako hondakinak eta jostailuak eraman ahal izango dira hara, eta bakoitza dagokion edukiontzira bota beharko da. Garbigunearen ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta zapatuetan, 9:00etatik 13:00etara. Langile bat dago bertan herritarrei laguntza emateko eta Garbigunearen funtzionamendua azaltzeko.

**LODOSO LEIHOAK**

*Zure nearrira egindako lana*

**Aluminio-egurrean espezialitatea**

- PVCa
- ALUMINIOA
- TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA

**Leihoetan PLAN RENOVE**  
**22 Eusko Jaurlaritzaren laguntza**

Sigmako Industrialdea, Xixillon, 2. pabillioa, 3. zenbakia  
 Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12  
 www.lodoso.es  
 fiodoso@euskalnet.net

**albe, S.L.**

- ▶ LAUKETAK
- ▶ MORTASAKETAK
- ▶ BROTXAKETAK

**GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!**

Sigma Industrialdea  
 Xixillon, 2 beheko solairua 9  
 Tel. 943 743 286  
 ELGOIBAR (GIPUZKOA)  
 talbe@euskalnet.net / www.albesl.com





Madalako elizak aspaldi galdutako estalpea berreskuratu zuen. Malapea elkartzeko eta jolaserako lekua izan zen sasoi batean elgoibartar askorentzat, baina 60ko hamarkadan kendu egin zuten estalpe hori.

Gipuzkoako eta Bizkaiko Larialdi Zerbitzuetako (PAC) langileek hiru eguneko itxialdia egin zuten martxo hasieran, Elgoibarko anbulategian. Osakidetza agintariekin zuten "gatazka luzearen korapiloa askatzeko egiazko negoziazio bat eskatzeko eta herritarren arreta pizteko" egin zuten itxialdia. Elgoibarko anbulategian gauerditik aurrerako larialdi zerbitzuak kentzea erabaki zuen 2010eko ekainean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta ordutik, arreta zerbitzu hori behar duten herritarrek Mendaro Ospitalera joan behar izaten dute.



'Erreminta makinaren industria eta Lanbide Heziketa' zine-foruma antolatu zuten martxoaren 23an Elgoibarko Udalak, Makina Erremintaren Museoak, IMHK eta MEKAK, elkarlanean. Zine forum horretan Angel Ajuriaren "Erreminta makinaren gaurkotasuna" filma eskaini zuten. Erreminta makinaren inguruko filma izanik, Elgoibar eta herriko zenbait enpresa ere agertzen dira bertan, eta baita hainbat elgoibartar ere. Emanaldiaren ostean, "Lanbide Heziketaren garrantzia atzo, gaur eta bihar" izeneko mahaingurua egin zuten.

Bernardo Ezenarro eta San Roke auzoa lotzen dituen igogailua martxo amaieran jarri zuten martxan. Igogailuari esker, 15,32 metroko altuera gainditu da, eta goiko aldean 21,50 metroko zubia jarri dute trenbidea gainetik pasatzeko. Igogailuak hogeit hamar lagunentzako lekua dauka, eta 6:30etik 23:00etara egoten da martxan. 491.247 euroko kostua eduki du igogailua eraikitzeko lanak, eta Estatuko Fondoen birtarte finantzatu da.



**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK  
MANU LEIZABE LOYOLA

GABON ZORIONTSUAK  
ETA URTE BERRI ON!

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD  
Salmenta eta zerbitzu teknikoak  
Errosario, 8 - Tel. 943 74 00 54



Sabin Txurruka 'Txutxo' pilotaria omendu zuen 10 Bai taldeak Sallobenteko frontoiak 100 urte betetzen zituela-eta. 4 urterekin ikasi zuen Sabiñek pilotan, auzoko frontoian. Laga, berriz, 60 urte beteta zituenean laga zion pilotan jokatzeari.



'Elgoibarko ahozko euskara' liburua aurkeztu zuen Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrak, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. 2009. urtean Makazagak aurkeztu zuen doktore tesiaren emaitza nagusia da liburu hau. Elgoibarko eta inguruetako adineko pertsoneri egindako elkarrizketetan oinarritu zen Makazaga datuak batzeko, eta Elgoibarko ahozko euskararen deskribapena egiteaz gain, inguruko herrietako euskararekin alderatu zuen. Gramatika, lexikoa, esamoldeak eta abar batu ditu liburuan filologoak, eta Elgoibarko berezko 2.500 hitzez osatutako hiztegia ere jasoko du liburuan. Horrez gain, urtarilean Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzburu izendatu zuten Makazaga.



Mikel Ibañez preso ohia gaixotasun larri baten ondorioz hil zen apirilaren 7an. 2008ko maiatzean laga zuten baldintzapean aske, bere osasun egoera aintzat hartuta. 2010eko irailetik aske zegoen, baina kontrolpean.



Euskal Herriko Kronoigoera Txapelketa irabazi zuen Iñigo Larizek, eta bigarren egin zuen Mendiko Eskiko Kopan. Potesen (Kantabria) jokatu zen proba.



## Ondo pasa jaiak!





NEURKETA DIMENSIONALENTZAKO EKIPO HORNITZAEIA  
KONTSULTORIA, PROIEKTU PERTSONALIZATUAK, FORMAKUNTZA



[www.sariki.es](http://www.sariki.es) [www.sarikal.es](http://www.sarikal.es)



KALIBRAZIO LABORATEGIA ETA NEURKETA ZERBITZUAK

# GABON ZORIONTSUAK!





Grupo Eibar nesken taldeak Euskadiko Eskubaloi Txapelketa irabazi zuen, bigarren urtez jarraian. Elgoibarren jokatu zen fase finaleko hiru partidak irabazi zituzten elgoibartarrek. Horrez gain, Sanloko bi jokalarik bakarkako sariak jaso zituzten. Ainhoa Etxeberria izan zen txapelketako golegile onena, eta Ane Uraini eman zioten jokalaria onenaren saria.



Concepto Createch areto futbol taldeak Nazional A mailara igozteko taldea izan ziren, liga amaitzeko lau jardunaldi falta zirenean. Gipuzkoako talde bakarra da maila horretan.

Jasone Osororen 'Ezekiel' eta Uxue Alberdiren 'Aulki jokoa' liburua saritu zituzten ikastolen Elkarrekin antolatutako Juul hauteskunde literarioetan. Haur eta gazte literaturan euskaraz argitaratutako liburu gustukoena zein diren jakiteko antolatzen dituzte hauteskundeak. *Ezekiel* liburua izan zen 12-16 (DBH) urteko ikasleen artean gustukoena, eta *Aulki jokoa* hirugarren gustukoena, 16-18 (Batxilergoa) urteko ikasleen artean. Maiatzean, bestalde, Liburu Gaztea saria jaso zuen Jasone Osororen *Ezekiel* liburua.



Arnaldo Otegi aska zezaten eskatzeko Elgoibarren egin zen estreinako manifestazio nazionalak ehunka lagun batu zituen, apirilaren 30ean, herriko kaleetan. Ezker abertzaleko, Aralarreko, EAKo eta Alternatibako ordezkariak gain, LAB, STEE-ELAS, Hiru, eta EHNE sindikatu eta ordezkariak eta gizarte eta kultur eragileetako hainbat lagun ezagunek ere parte hartu zuten, ehunka herritarrekin batera.





**PNEUMAX, S.A.**  
AUTOMATIZAZIO NEUMATIKORAKO OSAGAIAK

Olaso, 15. Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR  
Teléfono: 94374 41 44 - 943 74 41 74  
Telefax: 943 74 40 78  
E-Mail: pneumax@pneumax.es  
Web: www.pneumax.es

MEMBRO DE  
aiftop  
Electrónica y neumática






**Gabon zoriontsuak herritar guztioi!**





Emakumeen topaketa interkulturala egin zuten. Berdintasunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea, genero arrazoiengatik diskriminazio kasuak ezagutzera ematea eta oinarizko eskubideak bermatzea lehentasun modura kokatu zituzten bildutako 59 emakumeek.



Kosmodisea zientzia lehiaketan saritu zuten Elgoibar Ikastola. Foru Aldundiak ematen ditu sari hauek eta Elgoibar Ikastolako lau taldek jaso zituzten sariak.

Euskarazko hedabide ez publikoek dirulaguntzak % 25 handitzeko eskatu zieten erakundeek. Euskal Herriko 80 hedabidek sinatu zuten erakundeek egindako eskaria; baita BARRENEK ere.



PREZISIO MUNDU BAT



MYL S.A.

*Zorionak eta Urte Berri On!*

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO  
 Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130  
 E-posta: myl@myl.es · http:www.myl.es



Eguberri on,  
Elgoibar Ikastolako guztion izenean

Aritz, Mami eta Arrilagoak egina




elgoibar ikastola Pedro Miguel Urruzuno Koop.  
7962-2012







Alberto Hijanok Eduardo Chillida Euskadiko 9. Olinpiada Matematikoan lehen postua lortu zuen. DBH 2. mailan zegoen orduan Alberto, eta ordurako argi zuen matematikarekin edo fisikarekin zerikusia duen zerbairetan lan egin nahi duela.



EAJ-PNVk irabazi zituen Udal hauteskundeak Elgoibarren, eta Bilduk Mendarón. Horrela geratu zen Udal bakoitza; Elgoibar: EAJ-PNV 7, Bildu 7, PSE-EE 2, PP 1. Mendarón: Bildu 5, EAJ-PNV 3, PSE-EE 1. Alfredo Etxeberria aukeratu zuten alkate Elgoibarren, eta Sonia Garcia Mendarón.



400 lagun baino gehiagok hartu zuten parte Morkaiko Egunean. Morkaiko Mendizale Elkarateak Elgoibarko Itzulia eta Finalista Eguna, egun bakar batean batu zituen eta sekulako giroa sortu zen.

# EIZAGUIRRE

## OKINDEGIA

### LANTEGI PROPIOA

- **Espezialitateak:** artisau ogiak, espeltak, kandalak, zerealak, artozkoak,...
- **Betiko ogia, arratsaldetan ere beroa**

- **10 URTE, ZUEN KONFIANTZARI ESKER**
- **AURREZ ENKARGATU ITZAZU ZURE ERREGE-ERROSKAK**



**Gabon gauerako eta Eguberrirako ogi bereziak, enkarguz**

San Frantzisko kalea, 22 beheha  
Tel. 943 74 04 88





Alkorta eskubaloi taldeak Bigarren Nazional mailarako igoera lortu zuen. Estu eta larri lortu zuen igoera; azken segunduetan sartutako golak eman zion igoera Alkortari.



Maddi Mendibil Artetxek Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa irabazi zuen. Taldeka, 14 urte artekoetan, bat-bateko lanean irabazi zuen txapela Mendibilek eta idatzizko lanean aipamena jaso zuen.

Miloi bat euroko saria laga zuen Bonolotoak Elgoibarren. King-kong pareko administrazioan saldu zen saritutako txartela eta hori bakarrik ez, aste berean, administrazio horrek 63.000 euroko beste sari bat ere eman zuen.




**Metal Ez-Ferrikoak  
Plastiko Teknikoak  
Konpositeak  
Mekanizazio Lanak**

www.bronymec.com



**BIAK**  
*ileapaindegia*

San Inazio, 4  
Tel.: 943 742 725  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

**GABON  
ZORIONTSUAK!**

**Gabon zoriontsuak!**



San Frantzisko, 34  
Tel.: 943 74 84 27

arbeloainmobiliaria@euskalnet.net



*Ondo para gabonak!*

- ELKARTEEN ALDAKETA, ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE eta FISKALA AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. - Tel: 943 743 140 - Faxa: 943 744 123 - 20870 Elgoibar  
E-posta: norfo@norfo.es



Itigo Larizek errekor berria ezarri zuen Nahaste Borraste herri proban. Hirugarrenez irabazi zuen Nahaste Borraste Larizek, eta 18:03 denborarekin egin zuen azken horretan. Ainhoa Lendinez izan zen nesken arteko irabazlea.



Ion Egañak Larrabeako goif txapelketa irabazi zuen. Gaztetxoan mailan, 18 zuloako kategorian hartu zuen parte, eta lehenengo egin zuen, 79 punturekin.



Udaltzaingoaren lokala lekuz aldatu zuten. Ordura arteko lokala utzi eta Errosario kalean kokatu zuten bulego berria. Lehenengo lokalean, alderdi politikoentzako lokalak egin zituzten.

**AZALEA** Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel: 943 74 03 10

Helbidea: San Roke, 5 - 3. A - 20870 ELGOIBAR

**GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA**  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argi/zaritzkoa) - Mikropigmentazioa

**talleres ZAILDU S L**

Santa Klara, 40 Tel 943 74 07 60 Faxa: 943 74 39 85

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

**Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!**

**USATORRE** Taberna

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99

**CARBON ZORIONTSUAK ICARO!**

**ETXEPE** Lan bereziak

T: 943 741 297 / 943 740 654  
F: 943 744 321

www.etxepe.com  
etxepe@etxepe.com





Gabi jatetxeak irabazi zuen Pintxo Lehiaketa. Hirugarren Pintxo Lehiaketako epaileen saria eta herritarrena, biak, irabazi zituen Gabi jatetxeak egindako Mozzarella Meteoritoak.



Jon Peli Uriguen Gipuzkoako diputatu izendatu zuen. Gipuzkoako Berrikuntzarako, Landa Garapenerako eta Turismorako diputatu izendatu zuen Martin Garitano Ahaldun Nagusiak Jon Peli Uriguen.

Itsaso Alguacilek eta Lara Urainek irabazi zuten estreinako nesken pala txapelketa. 10 Bai taldeak antolatutako nesken pala txapelketa irabazi zuen bikoteak, Mireia Huidobroren eta Itziar Gerrikabeitiaren aurka finala irabazi ostean.



**IHARDUN**  
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



**Makina bereziak**

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L  
Tel.: 943 74 44 66 • Faxe: 943 53 14 74  
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net



Gotzon Zulaikak Flysch Trail lasterketa irabazi zuen. Bigarrenez irabazi zuen mendaroar gazteak Zumaiko mendi lasterketa, 23 urtez azpikoetan.



Quad txapelketa jokatu zen Idotorben. Estreinakoz Quad txapelketa bat jokatu zen Elgoibarren. Espainiako txapelkunak irabazi zuen Idotorben jokatu-tako proba ere.

25. Folklore Jaialdia antolatatu zuen Haritz dantza taldeak. Urtero bezala, Folklore Jaialdia egin zen herrian, baina berezitasun batekin, hogeitabosgarrena izan zen.



## ELGOIBARKO HERRI ESKOLA

*Eguberri  
eta urte berri On!*



Jaietako dantza solteko txapelketak 75 urte bete zituen. Horren harira, Miren Vallejo eta Inazio Etxeberria izan ziren jaietako txupinazoa botatzearen arduradunak.



Jose Luis Beloso apaiza, Ovidio Campello PSEko zinegotzia eta Pedro Mari Egaña 'Mintxeta' harri-jasotzailea hil ziren abuztuan.



Goiko Errotako zubitik San Roke kalera joateko bidea zabaldu zuten.

**HAIR'S**  
ILEAPAINDEGIA  
San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

**ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:**

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

**PAGOERROTA**  
*iturgintza*

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)  
Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Sakelekoa: 659 334 323  
[www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com) - [pagoerrotai@pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerrotai@pagoerrotaiturgintza.com)



# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.fjlodoso.euskalnet.net](http://www.fjlodoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalaz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04







Iñaki Kondek hartu zuen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko presidente kargua. Lehenago ere izan zen Elgoibarko Izarra-ko presidentea 90eko hamarkadan, eta orduan bezala, ilusioz hartu du erronka berria. Ander Soraluzek bete zuen presidente kargua maiatzera arte, baina Udal Hauteskunde-etan aurkeztu ahal izateko laga zuen Elkartea.



Dimas Gil elgoibartarrak 60ko hamarkadan ekoiztutako filma eman zuten Plaza Txikiko jai batzordeak antolatuta, eta sekulako arrakasta izan zuen. Kultur Etxeko hitzaldi gela txiki geratu zen emanaldi guztietan, eta antolatzaileek Herriko Antzokian eman zuten filma. Udalak omenaldi xume bat egin zion Raul Gili, Dimas eta Maritxu Osororen semeari, pelikularen aurkezpen ekitaldian.



ESKERTZA

## LOREA ALBERDI TXURRUKA

2011ko abenduaren 14an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## SANTIAGO LERSUNDI SORAZU

2011ko abenduaren 15ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







Maite Maiorak bosgarren postuan amaitu zuen mendi lasterketen munduko kopa. Korrikalari mendarorarak Italian jokatu zuen txapelketako azken proba, eta han lortutako puntuei esker lortu zuen munduko kopa bosgarren lekuan amaitzea.



200 lagunek hartu zuten parte Mintxeta atletismo taldeak antolatutako gau krosean. Euria egin arren, herritar asko irten ziren kalera lasterkariei animuak ematera, eta giro polita sortu zen herriko erdigunean.



Hamar urteko kartzela zigorra ezari zion Auzitegi Nazionalak Arnaldo Otegi, ETAKo buruzagi izatea leporatuta. Zenbait herritarrek hainbat protesta eta manifestazio egin zituzten Otegi eta gainerako atxilotuen askatasuna eskatzeko.



ESKERTZA

## JERONIMO ARAMBERRI ANSOLA

*"Gorriña" baserrian jaioa  
hain zinan lagun atsegin  
ehizean eta lagun artean  
denok gustura elkarrekin  
familia eta lagunak  
utzita orain aldegin  
jaungoikoak hala nahi bazuen  
guk ezin ezertxo egin  
gu bizi geran artean inoiz  
ez gera ahaztuko zurekin.*

Bere emaztea, alaba, amaginarreba, anai-arrebak eta ilobak.

2011ko abenduaren 1ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Urriaren 11n aurkeztu zuen Vanpopel taldeak estreinako diskoa. Zuhaitz Gurrutxaga, Aitor Badiola eta Maria Armendarizek osatutako taldeak Donostiako Doka kafe antzokian egin zuen debuta, eta ordutik kontzertuak eskaintzen dihardu han eta hemen.



Jon Larrañaga mendarorak Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketa irabazi zuen. Txapelketa oso ondo prestatuta joan zela adierazi zuen mendarorak eta oso pozik zegoen lortutako txapelarekin.



Larrait Uranga dominarik gabe itzuli zen Londresetik, Lanbide Heziketako olimpiaden munduko finaletik. Emaitzarekin erdizka, baina egindako lanarekin oso pozik itzuli zen IMHko ikaslea.



Arnaldo Otegiaren aldeko kontzertu akustikoa egin zuten. Arnaldo askatu politika askatu plataformak Euskal Herriko musikari ugariaren kontzertu akustikoa antolatu zuen.

Zorionak eta urte berri on!

**MAPFRE**

San Frantzisko, 40  
Tel.: 943 740 582 / 943 741 404  
Faxa: 943 741 707  
E-posta: patxiza@mapfre.com

**POLIKIROLDEGIKO TABERNA**  
Gabonetan bazkari eta afariak **GABON ZORIONTSUAK!**

San Roke 1, Tel: 620 13 59 56 Aurretiko enkarguak egin behar dira

Barruko erropak • Umeentzako erropak  
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19





Spinning gela berria inauguratu zuten Mintxetan. Gela berriak 110 metro koadro eta 40 bizikleta ditu; hogei erosi berriak. Leiho erraldoi bat dauka, eta ikus-entzunezkoetarako pantaila handi bat ere bai.



Jende asko batu zen BARRENEK aldeko Asto-kaka jokoan. Asteburu osoko egitaraua prestatu zuen Elgoibarko Izarrak, eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Barixaku gauean kontzertuak izan ziren, eta zapatuan, Asto-kaka eta baba jana. Jasone Osorok irabazi zuen bi mila euroko lehen saria, eta Mendaroko Ander Zulaikak jaso zuen mila euroko bigarren saria. Antolatzaileak pozik geratu ziren herritarrek emandako erantzunarekin.



Emugi proiektua jarri zuen martxan Udalak. Bi auto elektriko eta hamar bizikleta jarri dituzte herritarren eskura.



ETak borroka amatua lagatzen zuela iragarri zuen urriaren 20an, eta BARRENEK atal berezia eskaini zion gai horri. Hainbat herritarren testigantzak jaso zituen aldizkariak.

**ZUBACOR S.L.**  
  
**Patxi Beitia Arriola**  
 ZUZENDARI GERENTEA  
 Ibeitarre kalea, 11  
 Tel.: 943 740 844  
 Faxa: 943 742 666  
 50 posta kuba  
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
 www.zubacor.com  
 zubacor@zubacor.com

**karkizano**  
  
 San Francisco, 14  
 Tel.: 943 740 549  
 Elgoibar

**Maria Urizar**  
 - Ileapaindegia  
 - Solariuma  
 Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
 Tel.: 943 744 489  
 Elgoibar



**ZURE ALDE**  
  
**ABOKATUAK**  
 Gabon zoriotsuak!  
 Komunitateen, ugazaben aholkularitza.  
 Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.  
**Iñaki Gil Azpilicueta**    **Ignacio Vazquez Gonzalez**  
 Jausoro Plaza, 3 behea    e-mail: zurealde@telefonica.net  
 Tel.: 943 531 351    20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)





**Gemma Agirregomez-kortari eman zioten Gure Balioak saria.** Debegesak martxan jarritako kanpainaren barruan, Debabarreneko eskualdean gizarte balioetan oinarritutako jardunbidea izan duen pertsona edo entitatea saritzea da helburua, eta 30 bat laguneko zerrendatik elgoibartarra aukeratu dute aurten.



1983ko eta 1988ko ufaletan baino euri gehiago egin zuen azaroko lehenengo asteburuan, eta euriteak hainbat kalte eragin zituen Elgoibarren eta Mendaron. Zapatuan 89,8 litro ur metro koadroko bota zituen, eta domekan 123,1 litro.

Iban Barrene-  
txea elgoibarta-  
rrak irabazi  
zuen Euskadi  
Saria ilustrazio-  
aren atalean.  
*Bombastica*  
*Naturalis* lana-  
rengatik eman  
zion saria Jaur-  
laritzak.



Elgoibarko Izarrak Beinke bertso-eskola jarri zuen martxan. Azken bederatzirteetan Ikastolan egon zen Errazu bertso-eskola, eta orain, kalera atera dute. Hiru irakasle izango ditu eskolak, eta jolasen bidez irakatsiko diete gazteei bertsoetan.



## OSASUN GIDA

### MEDIKUNTZ ALTERNATIBOAK

**Kemen Belardenda.**  
*Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*

Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak eta familia konstelazio taillerak. Herbedietetikan eta fitoterapien aholkularitza, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta.

Berrial

- Triunidade esentziak.
  - Astero, barazki biologiko otarrak.
- San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031  
Egunero: 9:00-13:00  
16:30-20:00

**Sanatana Dharma**  
*Yoga Elkarte*

Anginei aurre egiteko masajea.  
Urasandi, 9  
Tel: 943 748 593 (Idoia)  
685 722 131

Astearte eta ostegunetan:  
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30  
*Mendaron* astelehen eta  
asteazkenetan:  
15:00-16:30

### ORTOPEDIKAK

**Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12  
Tel: 943 74 35 62  
Egunero:  
9:30-13:00 / 17:00-20:00

### MASAJISTAK

**Victoria Iraegi**

(Esku-terapiak: kiropraxia, drana-tzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).  
San Frantzisko kalea, 40  
(atzealdea) - Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera:  
8:00 / 14:00

### PODOLOGOAK

**Oinberri**

Errosario kalea, 25  
Tel: 943 741 795  
Astelehenetik ostiralera:  
9:00-13:30 / 15:00-19:30



**Iñigo Arrillaga Yudego**

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriren egindako plantilak.
- Hanka diabetikoaren zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko, 20 behea  
Tel: 943 741 645  
Orduetgia:  
9:30-13:30 / 15:30-19:30



Iñaki San Martin argazkilarik *Apur batean soka-dantza* liburua argitaratu zuen. San Bartolome Egunean egiten den soka-dantza eta Haritz dantza taldeko dantzariak dira liburuko protagonistak.



Amaiur koalizio independentistak lortu zituen boto gehien Elgoibarren eta Mendaron, Espainiako Hauteskunde orokorretan. Elgoibarren 2.022 boto jaso zituzten, eta Mendaron, 379. EAJ izan zen bigarren indarra bi herrietan, eta Espainia osoan bezalaxe, PSE-EEK jasan zuen beherakadarik nabarmenena.



Oier Ariznabarretak errekor berria ezarri zuen Karakateko igoeran, 28:17 denborarekin. Durangarrak bigarren urtez jarraian irabazi zuen mendi lasterketa. Emakumezkoetan, Maite Maiora mendaroarra izan zen garaile 35:45 denborarekin. Morkaikok antolatutako probak inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan ditu aurtengoan, eta guztiira, 88 lagun iritsi ziren helmugara.



Arkaitz Egañak Euskadiko 2011 txakurdun ehiza xeheko txapelketa irabazi zuen. 2012ko Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen.

## FISIOTERAPIA

### Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.  
Fisioterapia eta osteopatia.  
Tel.: 943 531 953  
669 565 745

### C.R.F. erreabilitazio zentroa

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.  
San Inazio, 2  
Tel.: 943 743 374  
Astelehenetik ostiralera:  
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

## OPTIKAK

### Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10  
Tel: 943 743 734  
Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00

### Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)  
San Frantzisko, 21  
Tel: 943 740 359  
Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00

## HORTZ KLINIKAK

### Irale

Errosario Kalea, 7 behea  
Tel: 943 743 679  
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)  
Tel: 943 177 134  
irale@irale.com  
www.irale.com

### Leku eder


- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa

- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harentzako tratamenduak
- PADI
- Elena Herrero Lobo medikua
- Aita Agirre enparantza, 5 behea.  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

### Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
- Trenbide kalea 21, behea  
Tel: 943 531 869





**Idekok 25 urte bete zituen.** Zentro Teknologikoak abenduaren 14an egin zuen urteurrenaren ospakizuna, eta Patxi Lopez lehendakaria ere izan zen bertan, beste hainbat agintariekin batera.



**Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso zuten Elgoibar Ikastolak eta Mendaroko Ospitaleak.** Saria jaso duten elgoibartarren artean, Ikastola izan da urrezko ziurtagiria jaso duen bakarra.



Arg.: Aitor

**Alcorta enpresak 100 urte egin zituen.** 1911ko abenduaren 1ean zabaldu zuten enpresa Esteban Unzuetak eta Teodoro Alcortak eskopeten kanoiak egiteko.



**Egaña eta Lizasoren arteko trontza apustuak ikusmin handia sortu zuen Mendaroko Kontzezio azokan.** Azkenean, Sebastian Lizasok eta Sonia Garciaek irabazi zuten.



## Muruamendiaraz

### gozotegiak

San Bartolome, 29 - Tel. 943 740 345



**Urte berri on!**





***Etxeko beroan  
falta diren guztiak gogoan,  
lanean dihardugu.***

***Ondo bukatu joan dena eta  
indarrez hasi urte berria!***

**KONTATU  GUREKIN**

**URTARRILAK 7 HERRI MOBILIZAZIO OROKORRA BILBON**





# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*



**Arantxa eta Marian**

FRUTADENDA

Tel.: 943 744 440

Zure fruta eta barazkia dei batean etxean!



**M. Angeles**

FRUTADENDA

Tel.: 605 674 428

689 989 487

Zure etxera banatzen dugul!



**MARI** HARATEGIA

Tel.: 943 743 681



Tel.: 635 704 712

Etxeko banaketa, fruta eta barazki freskoak zure etxean!



**TXILARRE** BARAZKIAK

Elikagai ekologikoak

Tel.: 635 008 496

[p.ekologikoak@euskalnet.net](mailto:p.ekologikoak@euskalnet.net)

Salmeta zuzena! Basemtik etxera!



**ZABALA** FRUTADENDA

Tel.: 943 744 295

Etxeko salmenta zuzena!



**LARUNBATEAN, ABENDUAREN 24AN**  
**BI OTARREN ZOZKETA**  
**EGUERDI PARTEAN**

*Gabon zoriontsuak denoi!*



IES ELGOIBAR-ARREITURRE BHI  
IEFPS MEKA GLHBI



2011  
2012



GABON JAI  
ZORIONTSUAK  
ETA 2012  
URTEBERRION

**AHOLKULARITZA**

**BIKAIN**  
ASESORIA

- ① Zerga-aholkularitza
- ① Lan-aholkularitza
- ① Kontabilitate aholkularitza

Tel.: 943 744 557  
Faxa: 943 740 408  
e-posta: [blkain@fonocom.es](mailto:blkain@fonocom.es)

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR

**Imprenta Arrillaga**

Inprimaketa: Offset  
Digitalen

Ekoniza gonbidapenak  
Hiria orizgarriak  
Gusta bertelak  
Kartelak - etiketak  
e.a.

Fotokopiak

Kolortan  
Trenbide Kalea, 13 - behea  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: [arrillaga@euskalnet.net](mailto:arrillaga@euskalnet.net)

**GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI**

**ASESORIA GOAR**

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea  
Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Faxa: 943 742 129  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
[asesoriagoar@euskalnet.net](mailto:asesoriagoar@euskalnet.net)

**NAVA**  
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - 208

Telf. eta Faxa: 943 744 451  
E-mail: [nava@euskalnet.net](mailto:nava@euskalnet.net)  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Gabon Zoriontsuak*

**Txintxo**  
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel: 943 742 674



## HERRI KIROLAK IZAN ZIREN NAGUSI KONTZETZIO AZOKAN

**Egaña eta Lizasoren arteko trontza apustuak ikusmin handia sortu zuen**

Hotz esnatu zen abenduaren 10eko goiza, baina hala eta guztiz ere, jende asko bildu zen Kontzetzio Azokan. Baserriko produktuak erosi eta dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek, eta dantza eskolako ikasleen emanaldiaz gozatze-ko aukera ere izan zuten herritarrek. Baina dudarik gabe, herri kirolak izan ziren azokako protagonista nagusiak. Goñati pilotalekua jendez gainezka egon zen, eta, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren arteko trontza apustuak ikusmin handia sortu zuen. Nor baino nor aritu ziren Nerea Arevalo eta Sonia Garcia lagun hartuta, eta azkenean, Lizasok eta Sonia Garcia alkateak moztu zituzten azkarrago hiru enbor zatiak. Horrez gain, bi aldiz Euskal Herriko txapela irabazitako Esteban Elorza 'Kortaberri' eta Agustin Larrañaga 'Agarretxiki' trontzalari ohiak omendu zituzten. (Erretratuak: BARREN eta Iñigo Lazkano.



*Dantza eskolako ikasleek dantzaldia eskaini zuten Herriko Enparantzan.*



*Taloa eta txorizoa ez ziren falta izan Kontzetzio Azokan.*



*Astigarragako Petritegi sagardotegiak irabazi zuen sagardo lehiaketa.*



*Baserriko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izan zen azokan.*





Harrijasotzaileek ikuskizun bikaina eskaini zuten.



Sonia Garciak eta Sebastian Lizasok irabazi zuten trontza apustua.



Omenaldi beroa jaso zuten Kortaberrik eta Agarretxikik.



Kortaberrik eta Agarretxikik ere gogor egin zuten trontzan.



Egañak bertsoak bota zizkien omenduei.



Dotore jantzi zituzten Mendaroko umeak azokarako.





Aldaz hortz klinikak  
jai zoriontsuak eta  
Urte berri on  
**2012**  
opa dizue

Ola kalea 10  
LASARTE-ORIA  
San Bartolome kalea 22  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 366 377



# MARKEL KEREXETA

Xake jokalaria

Joan den asteburuan jokatu zen Gaztetxoan Xake Txapelketa. Bi kategoriatan banatuta jokatu zuten txapelketa eta halaxe egokitu ziren irabazleak ere. 2001ean jaiotakoan artean, Paul Fernandez izan zen irabazle, eta 2000. urtean jaiotakoan artean berriz, Markel Kerexeta, gure protagonista. Hirugarrenez irabazi baitu txapelketa Markelek.



## “Aitarekin hasi nintzen xakean jolasten”

Hiru bider irabazi duzu Xake Txapelketa. Ez da makala zure adinean. Pozik egongo zara, ezta?

Bai, oso pozik nago.

**Noiz hasi zinen xakean jolasten?**

Zortzi urte nituela, hilabetean etxean egon nintzen bi hankak igeltsutan nituela, eta orduan zaletu nintzen, nahiz aurretik ere jolasten banekien.

**Nork animatu zintuen, edo nola bururatu zitzaizun xakean jolasten hastea?**

Betidanik gustatu izan zaizkit mahai-jokoak (partxisa, kartak...), eta aitarekin hasi nintzen xakean jolasten. Ondoren xake eskolan apuntatu nintzen, eta ahal denean Mikel Leon irakaslearekin aritzen gara eta asko ikasten dugu. Halere, beharrezkoa da herrian xakea bultzatzea eta behar bezalako eskola izatea.

**Eta nola hasi zinen txapelketetan parte hartzen?**

Elgoibarren orain dela hiru urte parte hartu nuen lehenbiziko aldiz, udaberriko txapelketan eta trofeo bat irabazteko zortea izan nuen.

**Zer da xaketik gehien gustatzen zaizuna?**

Orain arte irabazitako kopak eta trofeoak.

**Beste kirolekin alderatuta, zein da xakearen desberdintasuna?**

Oso desberdinak dira; halere, niri kirol mota gehienak gustatzen zaizkit.

**Zein da xakean horren ona izateko zure sekretua?**

Ez dakit.

**Animatuko zenituzke zure lagunak xakean jolastera? Eta zer esango zenieke animatzeko?**

Jada koadrilako batzuk aspaldi animatu ziren, eta pozik nago horrela beraiekin jolastu dezakedalako.



## Teknifikazio ikastaroa eta txapelketa antolatu ditu Sanlok Gabonetarako

Unai Arrieta izango da entrenatzaileetako bat

**S**anlo eskubaloi taldeak 2002an jaiotako neska-mutilentzako teknifikazio ikastaroa antolatu du Gabonetarako, eta horretarako, entrenatzaile kualifikatuak ekarriko dituzte: Unai Arrieta, Reyes Karrere eta Jose Ignacio Altube. Ikastaroa Olaizaga kiroldegian izango da, urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean, 11:00etatik 13:00etara.

### Gabonetako txapelketa

Bestalde, orain dela lau urte hasitako bidetik, alebin mailako eskubaloi taldeek Gabonetako Txapelketa jokatuko dute, abenduaren 27an, Olaizaga Kiroldegian. Goizean mutilen txanda izango da, eta 9:15ean hasiko dira partidak: Elgoibarko eskubaloi eskolako bi taldeek Eibar Eskubaloia, Bidasoa eta Gasteizko



Corazonistas taldeen aurka jokatuko dute. Arratsaldean, berriz, nesken bi taldeek jokatuko dituzte partidak, 15:30ean hasita. Zarautz, Zuazo (Barakaldo) eta Gasteizko taldeek parte hartuko dute txapelketan. Hamar taldek parte hartuko dute guztira.

## Eulogio Mancebo eta Andoni Etxeberria, txapelkunorde Gipuzkoako pala txapelketan



Eulogio Mancebok eta Andoni Etxeberriak Gipuzkoako pala txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Donostian, eta 25-17 galdu zuten Idiazabalgo bikotearen kontra. Dena den, bikote elgoibartarrak bigarren mailara igotzea lortu du, eta "pozik" agertu dira. Lagunak Taldeko beste bikotea (Joseba Etxeberria eta Jon Gallastegi), lehenengo mailara igo da aurten.

Bestalde, San Migeleko pilota txapelketako finala jokatu zen asteburuan, Murkaikupe frontoian. Emozioz beteriko partida izan zen, eta azkenean Unai eta Eneko Loiolak 22-21 irabazi zieten Sugar Etxaniz eta Iñaki Lazarobasterri.

### Hockey txapelketa antolatu dute Gabonetarako

Kirol patronatuak hockey txapelketa antolatu du abenduaren 26 eta 27rako. Goizez jokatuko dira partidak, Leku Ederren dagoen izotz pista urtarrilaren 8ra arte egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.



### Igeriketa ikastaroak

Kirol Patronatuak jakinarazi du urtarrilaren 9an hasiko direla haurrentzako zein helduentzako igeriketa ikastaroen hurrengo txandak. Informazio gehiagorako Olaizaga kiroldegira jo daiteke.

### Aurten ere ez da San Silvestre lasterketarik egingo

Iaz bezala, Gabon Zahar feria abenduaren 31n izango da, eta ondorioz, Urgazi Triatloi taldeak ez du San Silvestre lasterketarik antolatu.

### Morkaikoren ez-ohiko batzarra, gaur iluntzean

Morkaiko mendizale elkarteak ez-ohiko batzarra egingo du gaur iluntzean, elkartearen estatuto berriak aurkeztu eta onartzeko. 20:45an hasiko da batzarra, kultur etxeko sotoan. Bestalde, gaur amaituko da elkarteak antolatutako mendi argazki eta bideoen erakusketa.

# Azer Mirzoevek irabazi du aurten ere Nazioarteko Xake txapelketa

Azerbayandarrak hiru aldiz irabazi du txapelketa



**A**zerbayango Azer Mirzoev xakelariak irabazi du Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa. Elgoibarren lortu duen hirugarren txapela da honakoa, 2006koa eta iazkoa ere berak irabazi zituen-eta. Torneoak beste dominatzaile nagusia, Oleg Korneev errusiarra, sailkatu da bigarren postuan. Maila handiko torneoak izan dela adierazi dute antolatzaileek eta azken partidara arte sailkapena oso berdinduta egon da. Mirzoev eta Korneev xakelarien atzetik, hirugarren postuan sailkatu da Daniel Forcen Esteban espainiarra. Laugarren postuan, berriz, 1991n Torneoak lehen edizioa irabazi zuen Zenon Franco paraguaiarra sailkatu da.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Eibar B 0 (3. maila)  
 Aloña Mendi 3 – Elgoibar 1 (Ohorezko erreg.)  
 Elgoibar 0 – Lagun Onak 0 (Ohorezko jub.)  
 Eibartarrak 3 – Elgoibar 2 (Kad. A)  
 Elgoibar 2 – Eibartarrak 0 (Kad. B)  
 Elgoibar 1 – Ordizia 3 (Ohorezko inf.)  
 Elgoibar 2 – Ilintxa 2 (Inf. Txiki)  
 Elgoibar 2 – Aretxabaleta 2 (Aleb.)  
 Zumaiako 5 – Elgoibar 5 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Caspe 2 – Concepto Egile 2 (2.B)

### ESKUBALOA

Alkorta Elg. 24 – Estudios Gis 8 (Sen. mut.)  
 Tecnifuelle Elg. 36 – Atez ate Usurbil 25 (Sen. neska)  
 Aloña Mendi 33 – Beristain Elg. 13 (Jub. mut.)  
 Urdaibai 22 – IMH Elg. 21 (Kad. neska)  
 Astigarraga Elg. 18 – Bera Bera 14 (Kad. neska)  
 Amenabar 17 – Bankoa Elg. 27 (Inf. mut.)  
 Aloña Mendi 24 – Txarriduna Elg. 12 (Inf. mut.)  
 Aterpe Elg. 21 – Aiala 14 (Inf. neska)  
 Ikus Elg. 32 – Aiala Elg. 8 (Inf. neska)

## Kirol Federatuaren urteko sariak banatu zituzten atzo

Kirol Federatuaren urteko sariak banatu zituzten atzo arratsaldean, Musika Eskolako auditorioan. Horren aurretik kirolaren balioei buruzko mahainguru bat egin zuten. Hizlariak ondorengoak izan ziren: Asterio Perez (C.D. Elgoibar), Mikel Leon (Mekatar Xakea Taldea), Joserra Iriarte (Debabarrena Aretu Futbol taldea), Gojko Vucinic (Sanlo Esubaloi Taldea), Jose Angel Agirre (Elgoibarko Igeriketa Taldea), Olatz Baztarrika (Mintxeta A.T.) eta David Rodriguez (Elgoibarko Eskola Kirola). Klub bakoitzak aukeratu du bere alorrean zeinek merezi duen saria, eta alboko koadroan dituzue izenak.


1. Morkaiko mendizale elkarte.....Arkaitz Irureta
2. Sanlo eskubaloi taldea.....Pneumax enpresa babeslea
3. Wing Tsun taldea.....Fran Burgos
4. Mintxeta atletismo taldea.....Andrea Arrieta
5. Txusko moto kluba.....Marga Zapata
6. Lagun Taldea txirrindulari taldea.....Angel Mari Usobiaga
7. C.D. Elgoibar.....Jose Maria Arruabarrena
8. Elgoibarko igeriketa taldea.....Marian Arriola
9. Debabarrena areto futbol taldea.....Aitor Elizburu
10. Olaizaga karate taldea.....Joan Adolfo Dobarro
11. La Union ehiza elkarte.....Arkaitz Egaña
12. 40-15 tenis elkarte.....Ander Oñederra
13. Lagunak pilota eskola.....Eulogio Mancebo
14. Zubi Ondo xake taldea.....Juan Manuel Navarro
15. Egokran judo taldea.....Gorka Garate Rodrigo
- 16-17-18. Kirol Patronatua (atletismoa).....Pilar de la Lama  
 .....Antonio Fernandez  
 .....Julian Gonzalez
19. Kirol Patronatua (kazetaria).....Aitor Zabala



## Umeentzako 'Animalikeriak' liburua kaleratu du Jon Eugi idazleak

Animaliekiko errespetua lantzen du, besteak beste, liburuak

Umeentzako bigarren liburua kaleratu du Jon Eugi idazleak, Erein argitaletxearen eskutik. *Animalikeriak* izeneko liburuak, besteak beste, animaliei zor zaien errespetua lantzea du helburu, horretarako fisikoa eta errealitatea nahastuta. Bertold izeneko umea da liburuako protagonista eta berak bizitako abenturen bitartez, baserriko bizitzaren berri ere izango dute irakurle txikiak. Iban Izagirrek egindako ilustrazioz josita dago liburua, eta esan bezala, Bertold izeneko mutikoa bere eskola-lagunekin batera baserri batera asteburu pasa joanda bizitako abenturak kontatzen ditu Eugiren liburu berriak.



## Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Zazpikoloroa' ikuskizuna eskainiko dute

Bi saio eskainiko dituzte pailazoek abenduaren 30ean. 16:00etan eta 18:30ean. Hirriaren hiriko Zazpikoloroaren festaren berri ematen dute pailazoek, ikuskizun berrian. Usadioak dioenez, biharamun goizean jaioko da Zazpikoloro berria: urte osoan zehar mundua koloreztatuko duen hegazti miragarria. Gauaren er-

dian, ordea, Belekoi Andere zuri-beltz eta gaiztoa azalduko da, eta Zazpikoloroaren arrautza bahituko du. Patakun gidari dutela, eguna argitu aurretik aurkitu beharko dute arrautza pailazoek. Gazteria sailetik jakinarazi dute lehen saiorako sarreak agortu direla eta bigarrenerako gutxi geratzen direla.

## 2012ko egutegia aurkeztu du Udalak



Alfredo Etxeberria alkateak, Ane Etxeberria Euskara batzordeburuak eta Jokin Martinez Ongarriko kideak aurkeztu zuten joan den abenduaren

13an 2012ko egutegia. lazko moduan, aurten ere hainbat herritarrek egindako hamabi argazkirekin osatu dute egutegia. 65 euro jaso dituzte herritarrek, irabazle suertatutako argazki bakoitzarengatik. Guztira, egutegi handiaren 2.500 ale kaleratuko dira eta herriko elkarte, eskola eta bestelakoetan banatuko dituzte. Egutegi txikiak ere kaleratu ditu Udalak, herriko buzoi guztietan banatzeko. Era berean, egutegiak eskuratu nahi dituenak, aukera izango du Kultur Etxean edo eta Arreta Bulegoan eskatuta.

### Udal Musika Bandak urteroko eguberrietako kontzertuak eskainiko ditu

Eguberriak direla-eta, kontzertu bereziak eskainiko ditu Udal Musika Bandak: bihar, kalejira egingo dute 19:00etan. Eta Errege Egunean, urtarriaren 6an, goizeko 10:30ean kalejira egin eta San Lazaro egoitzatik igarorostean, eguerdiko 12:30ean kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian.

### Abenduaren 29an izango da Elgoibarko Izarraren bertso jaialdia

Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia dira abenduaren 29ko bertso jaialdian kantuan arituko direnak. 22:30ean hasiko da saioa eta 10 euro (7 euro bazkideentzat) balio ditu sarrerak. Gaur da, aurrez sarrerak erosteko azken eguna.

### Euskarazko produktuen katalogoak banatuko ditu Udalak

Euskal Herriko beste 135 toki-erakunderekin batera, euskarazko produktuen katalogo berria kaleratu du Elgoibarko Udalak. Guztira bi mila ale banatuko ditu elgoibartarren artean eta 240.000 Euskal Herriko leku desberdinetan. Hamasei urte arteko ume eta gaztetxoentzako produktuak biltzen ditu katalogoak.

### Kultura Bonoak erosteko aukera dago aurten ere

Eusko Jaurilaritzaren Kultura Bonoa ekimenarekin bat egin du Elgoibarko Udalak. Servi-Kutxan erosi daiteke bonoa; 25 euro ordaintzearen, 40 euroko gastua egin ahalko du bonoaren jabeak. Elgoibarko Udalak, bono bakoitzarekin Herriko Antzokian zinea ikusteko zortzi sarrera lortzeko aukera ere jarri du herritarren eskura. Abenduaren 12tik urtarriaren 5era arte erosi ahalko dira bonoak, betiere, lehenago agortzen ez badira.

# Bihar, goizeko 11:30ean iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi Madalako parkera

Aurten ere, taloak eta pintxoak salduko dituzte Atxutxiamaikako hezitzaileek

**A**urreko urteetan baino ordu erdi beranduago iritsiko dira aurten Olentzero eta Mari Domingi Madalako parkera. Hortik, Plaza Handiraino joan eta ume eta gaztetxoek eskutitzak jasoko dituzte.

Lehenago baina, Gabonetako idazlehiaketako sariak banatuko dituzte bikoteak plazan eta ondoren iritsiko da eskutitzak jasotzeko unea.

Olentzero eta Mari Domingi goiz-erdian iritsiko diren arren, goizeko 9:30erako hasiko dute eguna Atxutxiamaikakoek. Kalez kale kantuan hasiko dute eguna, gero kalejirarekin bukatzeko. Plazan hasiko dute diana, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte goizean goizetik parte hartzera.

## Jana eta edana

Hotzak barruak harrapatu baino lehen, zer jan eta zer edana izango dute bihar goizean Plazara gerturatutakoek. Txorizo pintxoak eta txokolatzeko eta txorizo talo egin berriak dastatzeko aukera eskainiko baitute Atxutxiamaikakoek.



## Hainbat ekitaldi egin ziren Euskararen Egunaren harira



Danobat kooperatibak, Institutuak, Ikastolak, Herri Eskolak... batek baino gehiagok ospatu zuten Euskararen Eguna Elgoibarren eta, tartean, Herri eskolako umeek Markel Bergara futbolariaren bisita izan zuten. Berarekin egon eta berarekin berba egiteko aukera izan zuten gaztetxoek. Horrez gain, giro bikaina sortu zen Danobatek antolatutako urteroko bertso-saioan ere. Beste hezkuntza zentroetan ere, euskararekin jolasean eman zuten eguna.

## Herriko Antzokia bete zuten Urban Show II ikuskizunak



Bartzelonako D'Block, Alacanteko In Situ, Kantabriako Dance Day eta Gipuzkoako Dance and Smile taldeak batu ziren Herriko Antzokian, hara gerturatutakoak aho zabalik lagatzeko asmoarekin. Denak ere maila ezin hobea erakutsi zuten dantzan, eta Maria Escobedo antolatzaileak harro bukatu zuten dantzaldia.

Herriko Antzokia guztiz bete zuten bigarrenaz, Urban Show jaialdiak. Dudarik gabe, beste behin, datorren urterako bidea eginda lagatzeko balio izan du aurtengo ikuskizunak.



## Oliba biltzaileak, zubi esekia eta erremintaria dira jaiotza mekanikoaren aurtengo berritasunak

35 taldek hartu dute parte gaztetxoentzako Jaiotza Lehiaketan

J oan den martitzenean ireki zituen ateak aurtengo jaiotza mekanikoak. Urtero bezala, herritarrek aho-zabalik uzteko osagai guztiak bildu ditu eskulanak baina horretarako, lan mordoa egin behar izan dute arduradunek. Pazientzia eta eskua beharrezkoak dituzte urtero-urtero jaiotza mekanikoa martxan jartzeko lanean jarduten dutenek. Piezak banaka elkartu, txukun kokatu eta martxan hastea, ez da makaleko lana izaten-eta. Urte osoa ematen dute lanean, guztia ez baita muntaketa-lana izaten. Figura berriek eta konponketek ere denbora ugari eskatzen diete zaletuei. Prestaketa lanak egiten dira lehenengo, eta irailean hasten dute muntaketa. Norberak bere imajinazioa dauka lan-tresna nagusi moduan. Arduradunen esanetan, imajinatu eta egin, ez da besterik. Bakoitzak bere irudimenari esker egiten du lan eta horregatik diote, ez dela jaiotza tradizional bat. Guztiz garai hura imitatu baino, egoera



Parrokiako kaperan dago jaiotza mekanikoa ikusgai.



eta espazio desberdinak nahasten dituzte denbora berdinean.

Urtero egin ohi dituzte berritasunak eta aurtun, oliba biltzaileak, zubi esekia eta erremintariaren txanda izan da.

Datorren urtarilaren 17ra arteko tarteak izango dute herritarrek jaiotza ikusteko. Astebarruan 17:30etik 20:30era egongo da zabalik eta asteburuetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

## Mugimendudun jaiotza irabazle gaztetxoentzako jaiotza lehiaketan



Eider eta Goizeder Arnedo ahizpek irabazi zuten lehen saria.

Pare bat pieza mugimenduan zituen jaiotzak irabazi du aurtun gaztetxoentzako txapelketa.

Parrokiako katekistek 25. aldiz antolatatu dute 14 urtetik beherako gaztetxoentzako jaiotza lehiaketa eta guztira

140 neska-mutilek parte hartu dute jaiotzak egiten eta lehiaketarako aurkeztutako lanak 35 izan dira.

Epaimahaikideen iritziz, Eider eta Goizeder Arnedo ahizpek aurkeztutako jaiotzak merezi zuten lehen saria. Bigarren saria, berriz, Danel eta Elene Zubizarretak eta Nerea eta Ainhoa Arnedok osatutako taldeak jaso zuten. Hirugarren saria, Ihintza Beristain, Ane San Martin eta Nerea Rodriguezek aurkeztutako lanak jaso zuten.

Aurtun ere era guztietako materialekin egindako jaiotzak ikusi ahal izan dira: plastilinarekin egindakoak, arrautzeekin, arto azalarekin, kortxoekin, mandarina azalarekin, lore eta landareekin, artilearekin, e.a.

# Euskal Herriko gaztarik onena aukeratuko dute Gabon Zahar ferian

Zortzi gaztagilek hartuko dute parte aurtengo txapelketan

Urtean zehar jokaturako gazta txapelketa desberdinetako irabazleak batuko dira Elgoibarren, Gabon Zahar ferian, eta bertan erabakiko da Euskal Herriko urteko gaztarik onena zein izan den. Zortzi gaztagile txapeldunek parte hartuko dute aurtengoan; tartean Elgoibarko Mausitxa baserriak.

Gazta guztiak, beraz, urtean zehar txapelketaren bat gutxienez irabazitakoa izango dira. Gazta onak guztiak, baina zer hartzen dute kontuan epaimahaiakideek gaztak probatu eta puntuak ematerakoan? Hori jakiteko Josu Mugertza Belaustegiko sukaldariarekin eta Agustin Irusta Kalamua elkarteko kidearekin egon da BARREN, eta epaimahaiaren lana nolakoa den azaldu dute.

Hamabi bat lagunek osatzen dute epaimahaia, eta kasu honetan, denek probatuko dituzte gazta guztiak. Partaide asko dauden lehiaketetan ezinezkoa izaten da denak probatzea eta taldeak osatzen dituzte, baina Gabon Zahar ferian zortzi gaztak probatuko dituzte.

Lehenik eta behin, gaztak kanpotik duen itxura hartzen da kontuan: denek



kilogramotik gora pisatu behar dute, baina ezin dira handiegia izan, ezta txikiegiak ere. Forma, dizdira, garbitasuna, eta azalaren textura ere neurtzen dira. Ondoren gazta erdibitzen da. “Garai batean zulorik ez zeukanak jasotzen zuen puntu gehien, baina adituek diotenez, gazta zulorik gabe egiteko trikimailuak daude, beraz, orain ez zaio horri hainbeste puntu ematen”, esan du Josu Mugertzak. Hortaz, orain zulotxo txiki dotore batzuk edukitzea hobea da. Azkenik, zaporea eta jan ondoreneko aho gustua hartzen dira kontuan.

Epaimahaiak ez du lan erraza edukiko. Josu Mugertzak eta Agustin Irustak esandakoaren arabera, gaztagileek badakite gutxi gorabehera zerk jasotzen duen puntu gehiago, eta gaztak gero eta antz gehiago daukate euren artean.

## Prestigio handiko lehiaketa


Gabon Zahar feriako gazta lehiaketak prestigio handia dauka, eta hau martxan dagoenetik inguruko herrietako lehiaketetan ere jende gehiagok hartzen du parte: “irabaziz gero badakite Elgoibarrera etortzeko aukera dutela”, esan dute antolatzaileek. Eta prestigioaren arabera da saria ere: gazta irabazleak 1.500 euroko saria irabaziko du. Laugarren edizioa da aurtengoa, eta oraingoz bi irabazle izan ditu txapelketak: lehen bi edizioak Ricardo Remiro Eulateko artzainak, irabazi zituen, eta iaz, Aranburu elkarteak aurkeztutako gaztak eraman zuen saria etxera.

Udaletxeko pleno aretoan jarraitu ahal izango du, nahi duen orok, Gabon Zahar Feriaren barruan egingo den urteko gaztarik onenaren aukeraketa. 12:00etatik aurrera epaimahaiakideen lana zuzenean ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Sari banaketa 13:00ak alderako egitea espero dute antolatzaileek; Elgoibarko Udalak eta Kalamua elkarteak.

2011N IRABAZITAKO TXAPELKETAK	IRABAZLEA
Deba, Bilbao eta Gernika	J.M. Ansola-Mausitxa (Elgoibar)
Uharte-Arakil	Felipe Agirre (Eulate)
Araia, Plentzia eta Euskal Herriko Txapelketa	La Leze (Ilarduia)
Azpeitia, Ordizia eta Iruña	Ricardo Remiro (Eulate)
Elgoibar eta Bergara	J. Aranburu elkarte (Idiazabal)
Legazpi, Hondarribi eta Eibar	Aizpea (Olaberria)
Abadiño	Patxi Baskaran (Markina-Xemein)
Agurain	Aixtra, S.C. (Araia)

Aurtengo partaideek lortutako sariak.





• Zorionak, **Elene**, hila-  
ren 9an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Iñigo**, hila-  
ren 12an 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Danel**, 9 urte egin dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Uxueren partez.



• Zorionak etxeko txikiari bere bigarren urtebetetzean. Etxeko guztien partez, patxo potolo bat! Jarraitu orain arte bezain pozik.



• Zorionak, **Nora**, 3 urte egin zenituelako. Markelen eta familiako guztien partez. Zelako goxoak zuk eginiko txokolate taloak!



• Zorionak, **Iker**, 5 urte egin dituzulako. Aita-txo, amatxo eta lagunen partez.



• Zorionak, **Oier**, zure zazpigarren urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Galderren partez.



• Zorionak, **Malen**, hila-  
ren 19an 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Maria Victoria**, urte bat egin dituzulako. Eskerrik asko gure bizitza argitzeagatik. Zure familiakoak.



• Zorionak, **Maria**, astelehenean 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Aimar**, abenduaren 27an 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi-handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Beñat**, zure seigarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Jare**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu asko familiakoen eta, bereziki, zure anai-arreben partez.



• Zorionak, **Julen**, zure 13. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Iker Jose**, abenduaren 10ean 7 urte egin zenituelako. Gurasoen eta, bereziki, anai-arreben partez.



• Zorionak, **Beñat**, abenduaren 11n urte-txo bat egin zenuelako. Etxekoen eta, bereziki, Maddi eta Garaziren partez.



• Zorionak, **Foke**, 10 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Sararen partez.



• Zorionak, **Maria Jesus**, 82 urte egingo dituzulako. Ondo-ondo pasa zure eguna. Lagunen partez.



• Zazpi kandela itzaltzeko prest? Zorionak eta muxuak, etxeko denon partez.



• Zorionak, **June**, abenduaren 15ean 3 urte egin zenituelako. Patxo handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Martin**, zure laugarren urtebetetzean. Patxo potolo bat familiakoen eta, bereziki, Unairen partez.



• Zorionak, **Urko**, hila-  
ren 16an 6 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat, bereziki, Irati-  
ren partez.




• Zorionak, **Irune**, hila-  
ren 29an 6 urte egingo dituzulako. Muxu asko etxekoen eta, bereziki, ahizpa Garaziren partez.



• Zorionak, **Iker**, abendu-  
duaren 20an 9 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen eta, bereziki, Gorane-  
ren partez.




• Zorionak, **Eider**, atzo 13 urte egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen, txapelduna! Muxu asko gurasoen eta, bereziki, ahizpa Goizedarren partez.



• Zorionak, **hirukotel** Segi orain arte bezala! Muxu handi bana, Aratz, Amaia, Aimar, Goliuri eta Xenkiren partez.



• Zorionak, **Nerea eta Julen!** Oso ondo pasatu genuen zuen urtebetetze egunetan. Ilargiraino eta buelta, mila aldiz. Muxuak, denon partez.



• Zorionak, **Nahia eta Jon**, gure bi potoloei, atzo urte-txo bat egin zutelako. Muxu pila bat biontzat! Etxekoen partez.

Gogoratu hurrengo alea **urtarrilaren 5ean** kaleratuko dela, beraz zorion-agurrak ekartzeko azken eguna **URTARRILAREN 3a** izango da 12:00ak baino lehen.

**Erretratu bakarreko agurra: 3 €.** Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 23 barixakua

### Musika

20:00 Gabonetako kontzertua  
Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Parrokian.

## 24 zapatua

### Kalejira

11:30 Olentzeroren kalejira  
Atxutxiamaiak antolatuta, Madalako parkean.

### Musika

12:00 Parrokiako abesbatzaren kalejira

### Musika

19:00 Udal musika bandaren kalejira  
Ondoren, Gabon kantak abestuko dituzte elizako arkupean.

## 26 astelehena

### Kirola

9:00 Izotz Hockey txapelketa  
Ikastolako eta Herri Eskolako umeentzako.

## 27 martitzena

### Kirola

9:00 Izotz Hockey txapelketa  
Ikastolako eta Herri Eskolako umeentzako.

### Ikusentzunezkoa

21:30 'Homenaje a Catalunya'  
Gaztetxean.

## 28 eguaztena

### Antzerkia

17:00 'Maddi pirata'  
Zirtaka antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

### Jaialdia

18:30 Txokolate jana  
Zubibai elkarteak antolatuta, Altzolan.

### Hitzaldia

19:00 Ekonomia  
Gaztetxean.

## 29 eguena

### Bilera

19:30 Asis Sarea  
Bilera eta otoitzaldia Santa Klaran.

### Bertsoak

22:30 Gabonetako Bertso jaialdia  
Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

## 30 barixakua

### Dailazoak

16:00 eta 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots  
Zazpikoloroa ikuskizuna aurkeztuko dute, Olaizaga kirolegian.

### Antzerkia

22:00 Antzerkia  
Gaztetxean.

## 31 zapatua

### Feria

9:00 Gabon Zahar FERIA

## 3 astelehena

### Ikusentzunezkoa

19:00 Otegiren aldeko kontzertua  
Urriaren 27an, Arnaldo Otegiren alde, Herriko Antzokian egin zen kontzertuaren DVDa aurkeztuko dute, Herriko Antzokian.

## 4 martitzena

### Formazioa

19:00 Kontsumoa  
Gaztetxean

## 5 eguena

### Filma

11:00 'Katu bat Parisen'  
Atxutxiamaiak eta Ludotekak antolatuta, Herriko Antzokian.

### Gabonak

17:00 Jaiotza biziduna  
Plaza Handian

### Gabonak

18:00 Erregeen kabalgata  
Santa Klara auzotik.

## 6 barixakua

### Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua  
Errege Eguneko kontzertua, Herriko Antzokian. Goizean kalejira egingo dute eta San Lazaro egoitzan ere abestuko dute.

### OKINDEGIA

25 domeka FOTERO

1 domeka IBARRENEA

### FARMAZIAK (24 orduz)

23 Etxeberria (Santa Ana)  
24 Ibañez  
Etxeberria (Errosario)  
25 Ibañez  
26 Etxeberria (Santa Ana)  
27 Fernandez  
28 Yudego  
29 Zabaleta  
30 Etxeberria (Errosario)  
31 Etxeberria (Santa Ana)

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

ZINEA

### «Criadas y señoras»

23, barixakua: 22:15  
26, astelehena: 21:30

### «Acero puro»

30, barixakua: 22:15





# BERTSO SAIOA ELGOIBARRĒN

Andoni Egaña

Uxue Alberdi

Unai Iturriaga

Jon Maia

Beñat Gaztelumendi

Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea

Abenduak 29

22:30

Herriko Antzokian





# TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARI  
ETA ZERBITZU ELKARTEAK  
**1.800€**  
OPARITUKO DITU  
EROSKETA-TXEKETAN

100€

500€

100€

500€

100€

100€

100€

100€

100€

100€



Abenduaren 26tik 30era Txankakua txartelarekin ordainduz erosketa bonifikazioak lortu ahal izango dituzu.

**TXANKAKUAK 750€  
OPARITUKO  
DITU ASTEAN ZEHAR.**





Urriak 27  
Ostera

# kontzertu akustikoa

Urriak 27 Elgoibar Herriko Antzokian

Gose  
Kerobia  
KenZazpi  
Zea Mays  
Napoka Iria  
Mike! Urdangarin  
Asier Serrano  
Raia Rueda  
Ion Gurrutxaga  
Oreka TX  
Esne Beltza

ARNALDO ASKATU POLITIKA ASKATU  
HERRI EKIMENA

DVD  
VIDEO

2012ko urtarrilak 3, asteartea  
Herriko Antzokian, 19:00ean

Arnaldoren omenezko urriaren 27ko kontzertuaren  
DVDaren proiektzioa lehen aldiz (1h45min).

**SARRERA DOHANIK! Goza ezazu ikusentzuneko bikainaz!!!**



ARNALDO ASKATU  
POLITIKA ASKATU

ARNALDO ASKATU  
HERRI EKIMENA